

Segur

COMUNIO

SANTUA



DURANGO-N  
FLORENTINO ELOSU-REN KIBRAN



39

A



3000







H-48343

F-48229

ATV

24488

**Segur Jaunac**

ESCRIBITU DUAN

# COMUNIO SANTUA;

**Jesus-en Lagundico**

**Aita LUIS MARIA ORTIZ-EC**

ESCRIBITUTACO

**Eguneroco Comunioa,**

**eta**

**Jesus-ec Sacramentu onetan**

**eguin izan dituan mirariren batzuec  
gueigarriztat dituala.**

(ELIZ AGUINTARIAREN BAIMENAREQUIÑ.)



**DURANGO-N**  
**FLORENTINO ELOSU-REN ECHEAN.**  
1906-garren urtian.



SUB TUUM PRÆSIDIUM, IMMACULATA.



---

## SARRERA

---

1859 garren urtearen azquenetan gaztelaniara itzuli eta arguitaratu zan *Fenelo-nen escutitza, maiz comulgatzearen gañean*. Eta escutitz onetan daude laburquiro baturic Elizaco Gurasoac, Eleizac bere lenengo eundi edo sigloetan, eta Trento-co Concilioac eracusten digutena, contu andia daucaquigun eguinquin onen gañian: jaquinduriz betetaco escutitz ori iracurtzea asco da, adimenturic illunenari ere eguia arguero ezagutu erazotzeco.

Baña ezta asco adimentuari eguia arguero ezagutu erazotzea eguite eta arrazoiaren birtartez; bear dana da, gañera muguitzea borondatea, eguiñ dezan, adimentuac eguitzat ezagutzen duana. Bigarren gauz au da Segur Jaunac eguiñ nai izan duana, gaztelaniara, oraindic orain itzuliric, bere baimenarequin arguitara ematen degun liburucho batean. Orretan deseguiten dira milla aitzaqui, cristau epelac jartzen dituztenac, maiz comulga-



tzeco daucaten naguitasuna estaltzeagatic, en-  
gañatzeco beren conzientziac, besteac ere en-  
gañatuaz, beren buruac ganaco hipocritac iza-  
ten dirala.

Segur Jaunac osatzen du Fenelon-en pen-  
tsamentua: onec aurquezten du condaira, eta  
ezagutu erazten du eguia; arc eracusten du,  
nola eguiñ, eta muguitzen du, len esan degun  
carta jaquiñecotzat iduquiaz eta guertaera  
ascotan bera gogora eraziaz.

Gure zorionean, bi gauz auen contraco do-  
triña guezurrezcoren batzuec, Españian ar-  
quitzen eztiranac dira Jansenio-tarren herejiya  
sartu zanian gure erreñuan, igaro dan eundi  
edo sigloaren bigarren erdian, orduraco Fran-  
zian garaitua zetorren, eta Eliza Catholicaren  
aurrean izandu zan, bere asmo gaiztoac azal-  
duric, condenatua. Españolen artian guchi  
izan dira Jansenio-tarrai jarraitu izan diote-  
nac; beren izenai, eta esribitu izan dutenari,  
eztiete begui onez beguiratu guizon onac, ez  
beste gauzagatic, baizic guizon gaizto eta Er-  
ligio gabeac asco alabatzen zituztelaco. Arra-  
zoi onegatic eztago gure artean gai onetan iya  
batere, Frantzian aiñ caltegarri izan ziran  
ichumen aietacoric. Baña beste aldetic dago  
ezjaquintasun andia eta arduragabetasun ne-  
gargarri bat.

Lan onen meritua ezagutzeco, asco degu  
jaquitea «*Religioan sinismenic ez dutenen con-  
traco erantzuerá labur eta errazac,*» jarri zituan  
aren beraren lana dala, eta Españian, gure



zorionean, ondo ezagutua dan liburu artan bezela, emen ere escribitzen duala modu eroso, erraz, confianzazco, alai, eta dembora berean eracustallean.

Maiz comulgatzearen gañeco eguinbearretan guerta ditequen guzia liburu onetan biltzeko, gueitzen zaizquio berari Indulgentzien Batzarre edo Congregazioaren azalde edo declaracioac, icusteco, zembat grazia eta gañeraco animaco ondasun daucaten Sacramentu Santuac maiz artzen dituztenac. Aita Santuaren oraingo erabaqui berri auec adierazten digute Pio bederatzigarrenaren pentsamentu eta dotriña gai onetan, Elizac beti eracutsi izan duan dotriñarequiñ oso bat dala, naita-naiez izan bear duan bezela.

## COMUNIO SANTUA

---

Comunio Santuaren gañean itz eguiten duan liburuko au arguitaratzean, ezta nere asmoa, fedegabecoac arguitzea, baizic comulgatzen diran cristauac debozio eta confiantzan sendotutzea. Nai nituzque nic zabaldu beren biotzac, ezagutu eraziaz obequi, esan eziñ bezelaco Sacramentu, guzia amorioa dan au, eta uqitu eraziaz beren escuz, oraindic Comunio Santutic guziz atzeraturic gaucazquiten Jansenio-tarren iduripenen utsqueria.

Nai niquie lagundu Apaiz onai, beren lane-



tan jarraituaz, lenengo cristauac maiz comulgatuaz santututu zituan Sacramentu onen birtartez, piedadezco espiritua pistu, eta albalitz, antziñaco debozio sutsu artara biurtzeco.

Nai nuque, itz batean esateco, lagun eguifñ nere indar guchiaquiñ, guzioi contu andia daucaquigun, fedea berriztatzeco eguinquizun andi, milagroen graziarequiñ bacarric eguin ditequen orretan. Beñere baño gueiago daucagu orain Santuen premia, eta Comunioa da bacarric Santuac eguiten dituana.

Adieraztera noan pentsamentuac dira, eguiazco debozioaren Ama dan bezela, eguiazco fedearena ere danarenac; au da Eliza-catolicarenac. Aurquesten dizquitzuet bada seguridade osoarequiñ: eta ateratzen badezute auetatic probechu edo consueloren bat, erregutzen dizuet Jaungoicoaren izenian, eguin dezazutela mesede pentsamentu oiec zabaltzeaz, ezagutzera emanaz, Jaungoicoaren Ama guziz Santaren honran eguiten dedan, lan humill au.

**SUB TUUM PRÆSIDIUM, IMMACULATA**

\*  
\* \*



# COMUNIO SANTUA

ZER DAN

---

Jesucristo gure Jauna dago eguiaz eta dana osoric aldareco Sacramentu Santuan. Au da catolicoentzat fedeco eguia, eta beragatic cristau guziac beti sinistu eta adonatu izan dutena. Bere Gorputz guziz Santua, gloriac betea eta zerucoia, aguertzen zaigu Hostia-ren iduripian, eta dago beti gure aldareetan, gure adorazioac artzeco, eta emateco gure animai, Comunio Santuaren bitartez, bear duten indarra, Jaungoicoarequiñ bat eguiñic irauteco. Comunio Santua ez da gu Jesucristorequiñ elcartzeco bide bear-bearrecoa, bada gueroc dancagu eta gugan dago Jesus, Escritura Sagraduac maiz eracusten digun bezela.

Ezta ere Comunio Santua, graziazco bizitza, au da, Jaungoicoarequingo gure elcartasunetic sortzen dan bizitza espirituala guri emateco. Ondo comulgatzeco gauza bearra da bizitza ori iduquitzea; graziaren bidez Jesusequiñ bat eguiñic



egotea; bada bestela Comunioa izango litzaque sacrilegioa.

¿Zertaco da ba eguiaz Comunio Santua? Gure animaren Jaungoicoarequingo elcartasun, anima oni santutasun eta bizitza ematen dizquiona, alimentatze-co, gure animaren graziazco bizitza sostenitzeco, argaldu eta erori ez gaitezen bidean, eta bizitzaco pelean; eta Jaungoicoac Bataio eta Confirmazioaren bidez eman digun santutasuna galdu eztezagun.

Au onela izanic, Comunio Santuaren grazia da, gure janari eta iraupeneraco grazia. Eta orregatic Jesucristo gure Jaunac Sacramentu onen gañian itz eguitean, esaten digu, comulgatu gabe, eziñ bizi ditequela inor cristauari dagoquion bezela. «*Eguiaz esaten dizutet, ezpadezute jaten Guizonaren Semearen Aragua, eta edaten bere Odola, eztezutela iduquico zuegan biziric.*» (1)

Cristau izateco eta Jaungoicoarequiñ bat eguiñic egoteco, gauza bearra da Comunio Santua artzea. Emen guerta-

---

(1) San Juanen Ebangelioan VI cap. 54 v.



tzen da animarequiñ, gorputzarequin guertatzen dana. Jan gabe, ezin iñor bizi diteque; janariac eztu ematen bizia, baizic sostendu eguiten du, eta ematen dio, osasuna deitzen diogun indar ori. Emen gorputza da animaren iduri bat bezela. Animaren bizia dator, Jesucristoren bitartez Jaungoicoarequiñ bat eguiñic egotetic; bat-tasun oni deitzen zaio grazia, eta onec iraungo badu, bear du janaria, eta janari au da Jesus Sacramentu Santuan, bada berac esan du: «*Ni naiz bizitzaren oguia. Nere Araguaia da eguiac janaria, eta nere Odola edaria. Nere Araguaia jan eta nere Odola edan eguiten duana NIGAN dago eta NI argan.*» <sup>(1)</sup> Nola gorputzac eziñ iraun lezaquean biziric, jan gabe, ala animac ere eziñ iraun lezaque iñolaco moduz, grazian, comulgatu gabe. Gorputzaren indarra eta osasuna datoz bere janaritic; animaren santutasuna eta sendotasuna datoz era berean Comunio Santutic.

Entenditu bear da ondo, Comunio Santua eztala, iristen dan santutasuna-

---

(1) San Juanen Ebang. VI g. cap. 48, 56 eta 57 g. v.



ren *sari* bat, baizic santutasunera eltze-  
co *bide* bat, eta bacarric *bidea*, eta ezer  
ere ez beste gauzaric. Ori bera esan bear  
degu gorputzaren janariagatic. Eztu ba-  
tec jaten sendo dagoalaco, baizic sendo  
iranteco edo sendotasunera eltzeco.

Gure gorputza bizico bada, gauza bea-  
rra da, maiz jaten oitutzea, alasse da ere  
gauza bearra maiz comulgatzen oitutzea,  
cristauari dagoquion bezela bizi izateco.

Au da eguiaz Eliza Catholicac Comu-  
nioco Sacramentu Santuaren gañian era-  
custen diguna. Eta ala Trentoco Conzi-  
lio Santuac, contuan iduquiaz Eleizaren  
dembora guzietaco dotriña, eta Elizaco  
Gurasoac eracutsi izan dutena, esaten  
du arguiro bere deseoa dala, *icustea*  
*cristau guziac Communio Santua artzen*  
*egunero Meza Santua entzutean, deseoz-*  
*co Communioarequin bacarric guelditu*  
*gabe, era onetan ugariago biltzeco Sā-*  
*crificio guziz Santu onen frutuac.* (1)

---

(1) Optaret quidem sacrosancta Synodus, ut in singu-  
lis missis fideles adstantes non solum spirituali affec-  
tu, sed sacramentali etiam Eucharistiæ perceptione  
communicarent quo ad eos Sanctissimi hujus Sacrifi-  
cii fructus uberior proveniret. (Conc. Trident. sess.  
XXII, cap. VI.)



Ausse da eguia, ausse da Jaungoicoaren borondatea, ausse da bere Elizaren ao, engañatu eziñ ditequenetic ematen digun erreguela. Icasi beza ondo bacoitzac erreguela au, eta berritu, ala bear bada, bere iritzia, engañatu ezin ditequen epai onen erara. Onembesterequin ondo entenditutzat emanaz, zimendutzat jartzen degun dotriña au, guazen orain icustera arguiro, zer erantzun bear zaien, maiz comulgatzeco zorionetic norpera edo besteac aldentzeco eman oi diran arrazoiai.

I

MAIZ COMULGATZECO GAUZA BEARRA DA,  
NAIZEN BAÑO SANTUAGOA IZATEA.

Ondo da: zu zeran baño santuago izateco, gauza bearra izango da maiz comulgatzea.

Bi auetic ¿zeiñec dauca arrazoia? Icusten danez zu zera Comunio Santuari, ez bide edo medio, baizic sari bat balitz bezela beguiratzen dioten aietaco



bat, eta ori da utseguite guziz andi bat, orain berriro esan dedan bezela.

Eguia da bear bezela comulgatzeco, premiazcoa dala santutasunen bat; baña ¿zer santutasun bear da? ¿Izango da benturaz santu andi ta martiriac izan oi dutena? Ez egiaz. Maiz comulgatzeco bear dan santutasuna, zuc eta cristau guziac diranac dirala, irichi dezazuquetena da. Asco da onetaraco Jaungoicoaren grazian egotea, pecaturic ez eguiteco eta Jaungoicoa leialqui serbitzeco borondate onaz. ¿Eztá benturaz ondo erraza prestaera au? Eta ¿eztezu ezagutzen Jaungoicoac ala escatzen duala? Ain da eguia, nun, au gabe, eziñ izan ditequean iñor, eguiazco cristau ere. Eta bestela, esan bedi; ¿zer da pecatu mortalean dagoan eta gaitzaz poztutzen dan cristau bat?

Edozeiñ moduz ere, ondo comulgatzeco eztu escatzen Jesucristo gure Jaunac beste gauzic, baizic izatea bat cristau eguiazcoa, eta iduquitzea Jaun beragana borondate on bat. ¿Badaucazu borondate on au? Esan ezazu lotsic gabe. Ezpadaucazu, eztaucazu beste erreme-



dioric, aleguiña eguitea baño, zeregana-  
tzeco borondate on ori, bada ori gabe,  
infernura joan bearco dezu. Baña, bal-  
diñ badaucazu, ¿zergatic eztezu joan  
bear comulgatzera, borondate ori sendo-  
tu eta gueitu dediñ? Arrazoi aiñ andi  
eta contraric ezin eguin lezaiouen au-  
sse da bere demboran ematen ziena cris-  
tauai, San Juan Crisostomo, Constanti-  
nopla-co Arzobispo andiac, esaten ziela:  
—«Edo ta zaudete, Jaungoicoaren gra-  
zian edo ta ez. Bazaudete, ¿zergatic ez-  
tezute artzen Comunio Santua, izanio  
au, grazian iraun dezazuten ipinia? Pe-  
catuan bazaudete, ¿zergatic etzuazte  
confesio on baten bitartez garbitzera,  
eta ondorean bereala Comunio Santua  
artzera, berriz erori etzaitezten bear be-  
zela indartzeco?»—

## II

EZ NAIZ NI DIÑA AIÑ MAIZ COMULGATZECO.

Beraz eziñ beñere comulgatuco gue-  
ra, bada San Ambrosioc dion bezela,  
egunero comulgatzeco diña oraiñ ezta-



na, ¿izango da benturaz urte bete barru? (1)

Esaten dezu, zure iritzian, eztezula uste orretaraco diña zeranic; baña ¿eztaquizu zembat eta gueiago aldentzen zeran Jesucristogandic, aibat eta guchia-go merezi dezula Beragana urreratzea?

Sacramentuac utziaz zuazen bezela, dijoaz gueituaz utseguiteac, guelditzen zeralaco bizitzaco ogui gabe, izanic au Antioquiaco San Ignazioc esqueintzen ziena lenengo eundi edo sigloco cristauai, «pecatuaren contraco erremediotzat eta eriotzatic libratzeco prenda bezela.»

Quendu bada guezurrezco humilltasun ori. Ondo daqui Elizac etzerala diña comulgatzeco, eta ala ere deitzen dizu maiz, eta ez bacarric maiz, baizic guziz maiz comulgatzera. Aiñ ondo daqui, ez zu eta ez besteric, comulgatzeco diña etzeratela, nun obligatzen dituan bere seme guziac, apaizac bera eta baita Obispoac ere, esatera comulgatu aurretic, ez beiñ bacarric, baizic iru alditarão eta biotz guzitic: *Domine, non sum*

---

(1) Lib. de Sacramentis.



*dignus ut intres sub tectum meum.* Jau-  
na, jez naiz diña, Zu nere barrumbe  
errucarrian sartzeco!

Elizac etzaitu beartzen comulgatzera,  
artaraco diña zeralaco, baizic comunio-  
aren premia daucazulaco zure Maisu  
guziz andi eta santuagañaco diñeztasun  
alic guchien izan dezazun. Deitzen dizu  
maiz comulgatzera, ez santua zeralaco,  
baizic, santu izatera eltzeco; ez sendoa  
zeralaco, baizic argala, indarguchicoa,  
gaitzera griñatua, engañatzen erraza eta  
araguizcoa zeralaco.

Jaungoicoaganaco *beldurra* ezta bir-  
tutea. Santutasuna dago *amorioan*, (1)  
«Orain bada: amorioac aldentzeu du bel-  
durra; bada beldurra. daucanac sufritu  
eguiñ bear du, eta baita galdu ere on  
guziac baño obea dan, eta gurc adimen-  
tuac eta biotza Jesucristogan gordetzen  
dituan Jaungoicoaren paque ori.»

Jaungoicoaganaco beldurra da Janse-  
nio-tarren santutasunaren parte bat, aiñ

---

(1) Jaquiñ bedi, emen eztala itz eguiten Espiritu San-  
tuaren doaiia dan «Jaungoicoaren beldurraren» gañian,  
baizic escrupulu gueieguizcoaz, gauz onac eguitetic al-  
dentzen gaituan beldur guezurrezcoarenean.



guezurrezco eta peligrosoa, nun ichitzen duan biotza, eta deseguiten duan amorio eta confianza, ondatuaz animac ichume-nean utsean eta desesperazioan.

Eguiazco humilltasuna confianzare-quin batean dijoa beti. Laugarren eundi edo sigloco eracusle Santu batec, galde-tuaz bere buruari, ea maiz comulgatzen dana, ala noizean beiñ eguiten duana, dan humillagoa, erantzuten du bereala, *Jesus Sacramentatua* maizago artzen duana dala humillagoa, onetan aditzen ematen dualaco, obequi ezagutzen duala bere ezereza, eta erremediatzeco dau-can premia.

Poztu bada; eta zuaz Jesusgana; bere amorioaren diña ezpazera ere, berac maitte zaitu; zuaz beragana, biguntasun humill eta agueriaquin, gure ezerezari baño Jaungoicoaren amorioari gueiago beguiratuaz. Zembat eta gueiagotan comulgatzen zeran, orduan ta prestaera obeam izango dezue comulgatzeco.

---



III

MAIZ COMULGATZEN DANEAN, ELTZEN DA BAT  
EZER ERE EZ SENTITZERA.

Guerta diteque ezer ez sentitzea iru-  
dimenean eta sirach edo nerbioetan, ba-  
ña borondatean, beste gauzaric da. Gai  
onetan itz eguiten det, eguneroco testi-  
gu bezela, icusi ditudalaco, maiz comul-  
gatzeac eguiñ dituan mudantz andi eta  
miragarriac, prestaera onarequin artzen  
duten biotzetan. Eguia da, sentiduzco  
debozio bigun baten gozotasunaren on-  
doren bagoaz, icusico degu, zembat eta  
maizago comulgatzen gueran, orduan ta  
sentiduen gozotasun guchiago arquituco  
degula. Baña Comunio Santuan eztegu  
billatu bear, ez gure poza, ez negar mal-  
co gozoac, ez debozioaren berotasuna;  
Jaungoicoac ematen badizquigu, eman  
bear dizquiogu ezquerrac, seme batec  
bere amari ematen dizquion bezela, onec  
bazcalostean eman dizquion gozoren bat-  
zuecgatic; baña postreac dira janari in-  
dar guchicoac eta eztira bear-bearrecoac  
bazcari batean; era berean zeruraco bi-



dean eta Comunio Santuan, izanik au bide onetan guziz bearra, billatu bear degu sendotasuna, au da, cristauari dagozquion birtute humiltasun, eztitasun, penitentzi, caridade eta lureco gauza guzien desprezioa gueitzea, guchitzat iduquiaz sentiduen pozaldi oiec, umeentzat gozoac bezela, animarentzat diralaco.

«Etzaitezte utzi engañatzen, dio San Alfonso-c, zembat eta guchiago comulgatu, orduan ta debozio gueiago izango dezutelaco ustean. Eguia da, guchitan jaten duanac, gogo obearequiñ jaten duala, baña ezta egongo ordu jaquiñetan jaten duana beziñ sendo. Guchitan comulgatzen bazerate, baliteque izatia sentiduzco debozio pusca bat gueiago, baña Comunioa ezta izango aiñ probechugarria, izango eztualaco animac indarrie peccaturic eguin gabe egoteco.»

Eztezazula bada pensatu, aiñ asco bali duala sentiduzco debozio apur bat gueiago iduquitzeac, eta saia zaite goragotic beguiratzen santutasunari. Billa ezazu Comunioetan Jesusen amorio eraguillea, eta arquituco dezu beti. Comul-



gatzen zeranean tentazioen contra indartsuago izateco, castidadea obequi gordezeco, orazio obequi eguiteco, eguneroco peleatan indartsuago arquitezco, egon zaite seguru, probechu andia ateraco dezula zure Comunioetatic, eta zembat eta gueiagotan comulgatzen zeran orduan ta mesede gueiago eguingo dizutela Comunioac.

#### IV

BELDUR NAIZ GAUZA SANTUAC ERRESPETO GUCHIREQUIN TRATATUCO OTE DITUDAN.

Beldur ori ona izan diteque, baña baita charra ere. «Errespeto guchi» orren izenarequin adierazi nai badezu arduragabetasuna, eta edozeiñ moduz gauzac eguitea, orduan arrazoia daucazu.

Gauza bat da oituraz eguitea, eta beste bat edozeiñ moduz eguitea; gauza bat dan bezela ondo eguitea, eta beste bat gauza onaz gaizqui usatzea. Premiazcoa da gauza onaz usatzea, baña ez gaizqui usatzea. Era berean da premiazcoa gauza onaz gaizqui usatzeco beldurrez oiec



eguiñ gabe ez uztea; gañeracoan elduco  
guiñaque ezer eziñ eguiñ izateraño; bada  
edozeiñ gauzaz gaizqui usatu diteque.

Baña errespeto guchiren izen orre-  
quin aditzen eman nai badezu, confian-  
za, oiturazco batasuna, Jaungoicoaren  
escuetan gozoro eta esperanza osoan uz-  
ten zerala, guziz gaizqui eguingo dezu,  
cristauari oso ondo dagoquion sentimen-  
tu oni biotza ichitzen badiozu.

Elizac maiz comulgatzeco consejua  
ematen digunean, nai du confiantza  
eguiazcoa iduquitzea Gure Jaun adisqui-  
de cerutarragan, bada onen amorioa el-  
cartzen da guziz ondo errespetoarequin.

¿Nore izan dio Gure Jaunari errespe-  
to gueiago Santuac baño? Eta ala ere  
¿eztute amatu izan santu guziac biotze-  
co biguntasun eta confianzaric andiena-  
requiñ? Eta aiñ urrutira juan gabe, ¿zeiñ  
dira, ezagutzen ditugun cristauen ar-  
tian, Jaungoicoari eta bere legue santua-  
ri errespeto gueiago ecartzen diotenac,  
maiz comulgatzen diranac baño?

Ez bacarric beldurric izan bear eztezu  
Jesucristorequiñ confianza andia artze-  
co, eta Comunioco Sacramentuan maiz



Bera artzen oitzeco, baizic saiatu bear dezu oitura ori artzen. Oitura onac aimbat dira estimagarriac, zembat diran arriscutsuac oitura charrac.

Arrazoiz esan diteque eztala guizon bat cristau eguiatz eta sendoro, Jaungoicoaren serbizioa beretzat oitura bat, aunda, bigarren naturaleza bat izatera eldu arte; au onela izanic, Comunio Santua da Jaungoicoaren serbizio onen biotza. «Egun bat igarotzea Mezaric entzun ez, eta comulgatu gabe, da neretzat, soga gatzic gabe jatea bezela;» ala esaten ziran egun batian protestante izan eta catolico eguin zan, Jaungoicoa guziz ondo serbitzen zuan batec.

Oitu zaite comulgatzen; ondo comulgatzen; eta ori iristeco, comulgatu zaite maiz. «Ezta ondo eguiten gauza bat, esaten digu San Francisco Salesec, maiz eguiten ezpada; eta languilleric onenac dira lanic gueien eguiten dutenac.»

---



V

EZ NAIZ ATREBITZEN COMULGATZEN CONFESATU  
GABE, ETA EZIÑ CONFESATU NINDEQUE NAI DE-  
DAN GUZTIAN.

¿Eta zer? ¿Norc aguintzen dizu beti  
confesatzeco? Elizac nai du maiz confe-  
satzea, eta egunero ere bai al izan ez-  
quero, baña eztigu jartzen Comunio ba-  
coitzeraco confesatzeco obligazioric (1).

Eztezagun gueieguiric esan, Aita San-  
tua baño catolicoago izan nai degularic.  
Ezteizcagun jarri gure buruai iñorc ez  
jarri, eta consejatu ere eguin ez dizqui-  
gun obligazioac. Oraindic aurrerago nua  
eta diot, gai onetan, zuic daucazun bel-  
dur ori, Eliza beraren deseoai contra  
eguiterañocoa dala. Trentoco Batzarre  
edo Conzilioac esaten digu, gure con-  
tzientzian pecatu illcor edo mortalen  
bat ezagutzen degunean, bacarric orduan  
gaudela obligaturic Comunio aurretic  
confesatzera, baña gañeracoan ez, eta  
Sacramentu Santuac maiz artzen dituz-

---

(1) Icusi bedi liburu onen azquenean, indulgentzien  
Batzarre edo Congregazio Sagraduac aitortzen duana  
asteroco confesioaren gañean.



tenac, oso guchitan erortzen dira peccatu mortalean.

Gure argaltasunari dagozquion peccatu ez aiñ andi; au da, benialac deitzen diran oiezaz, fedea eracusten digu arguiro, Jaungoicoaganaco amore eta damutasunezco acto eguiazco bat, asco ditugula oietatic oso garbitzeco; eta errazago irichi dezagun garbitze au, Elizac, amari arduratsuenac bezela, jarri ditu, beste alderdi, gure contzientziac garbitzeco guziz errazac diran batzuec; auec deitzen dira Sacramentalac; eta dira, beste ascoren artean, ur bedeincatua artzea, Aita gurea edo Confesio generala esatea, eta gañeracoac.

Baldiñ oraindic badezu beldurren bat comulgatzeco, azqueneco confesioa ezquero peccatu benialen batzuec eguiñ dituzulaco, Eliza Catholicaren aoa dan Trentoco Conzilioac aitortzen du Communio Santuac gordetzen gaituala peccatu mortaletic eta quentzen dituala peccatu benialac (1).

---

(1) Antidotum quo liberemur «a culpis quotidianis» et á peccatis mortalibus præservemur. (Conc. Trid. sess. XIII, cap. II.)



Aditu ezazu ondo zer dioan: ezta Confesioa, baizic Comunioa, zuri aimbeste beldur ematen dizun Comunio ori bera, eguneroco utseguiteac quentzeco jarria izan dana. Ezereztutzen ditu, suac lastua bezela. Suac eztitu ezereztutzen ez burnia ta ez arriac. Pecatu mortalac dira arriac eta burnia bezela, bada auec bacarric confesioco mallu astunac porracatu ditzaque; eta lastua berriz da, egunero zorigaitzean, deseoric onenac ditugularic ere, eguiten ditugun utseguite chiquizco mordo ori.

Jansenio-ren dotriña izan da gure artean ere sartu duana catolicoen dotriñaren contraco beldur au, goratuaz Confesioa Comunioaren costuz, santutasun andiagoaren aitzakiarequiñ, necatzen gaituala bere escrupuloaquiñ, contzientzia galduaz, eta guzia deabruaren atseguin andiarequin; santutasunezco labe sutua dan Comuniotic urrutiraturic gauzcala *errespetoz*.

Comulgatu zaita bada beldurric batere gabe, eta pozez beteric. Confesorearen ondoren bazoaz beti, eldu zindezque gogait eraguitera berari, baña maiz, naiz



ta egunero comulgatzen bazera ere, zauder arduraric gabe, bada eztezu orregaticogogaituco Jesucristo gure Jauna.

## VI

EZIN COMULGATU DITEQUE INOR PRESTATU GABE,  
ETA EZTAUCAT ASTIRIC BEAR BEZELA PRESTATZECO..

Ez guaz jaquitera prestaera gabe comulgatu ditequen ala ez. Gauza ain santu bat ezta eguin bear edozein moduz. Prestaeraric ezac eramango gaitu oztasunera, eta gure deboziozco obraric ederrrenac alperricaco eta oraindic arriscutsu ere biurtuco ditu: Comunio Santua artzeco, da gauza bearra ez bacarric prestatzea, baizic ardura andiaz prestatzea, eta oraindic ondo eta guziz ondo prestatuta guero ere, da gauza bearra Jaungoicoaren aurrean humilltzea, erregutuaz, eguin deguigula mesede, berac ipintzeaz guri falta zaiguna.

Baña, ¿zer eguin bear degu ondo prestatzeco? ¿Izango da gauza bearra ondo comulgatzeco, deboziozco acto asco eta



meditazio luzeac eguitea? Ez eguiaz; ori guzia guziz ona da eta guziz probechugarria, astia dagoanian; baña ez dute izaten guziac orretaraco bear dan astia. Elizac deitzen digu guziori, edozein estatutacoac izan ta ere, maiz comulgatzera, baña bera da aurrenecoa esaten, cumplitu ditzagula lenengo gueron estaduco obligazioac.

¿Zer eguiñ bear da bada orduan Comunioraco prestatzeco? Bizi izan cristau on bat bezela, au da, orazio eguiñ contu guziaz, oroitu maiz Gure Jaunaz, eta berarequin bat eguiñ gure biotza; zaitu gure griñac, utseguiteric chiquienetatic ere aldentzeco; artu asmo erabaquia, gure eguinquizun guziac betetze-co, Jaungoicoari onela atseguin emate-co, eta oitu humill eta otsanac izaten. Comunio Santuraco prestaera eguiazcoa dago, bizi izateco moduan, eta esquerac emate eguiazcoa berriz ezagutu-co da, Comunioco eguna nola igaro dan icustetic.

Au onela izanic, esan zadazu; ¿norc eragozten dizu ori eguitea? ¿Zer bada? ¿Ain dembora asco bear da, Gure Jau-



naz oroitzeco eta Bera maitatzeco? ¿Ain gauza gaitza da garbia eta ona izatea, eta gure eguneroco obrac intentzio santuen bitartez on biurztea? Dembora berdiña bear da naiz ona eta naiz gaiztoa izateco, baita ere Jesucristogan nola norpere buruagan pentsatzen bizitzeco.

Bizitza santu eta on bat eguiten badezu, beti arquituco zera prest, ondo comulgatzeco. Santa Magdalena Paziz-coac, comenturaco ognia eguiten arizala goiz batean, aditu zuan, mojai Comuniora deitzen zien ezquilla. Nola bere escuetaco lana zeucaquion esqueiniric Jaunari, eta biotzez zegoan tabernaculoaren aurrean, etzuan izan beste prestaeraric, eta Jaunaganaco amorez suturic, abiatu zan capillara, Jauna artzera, conturatu gabe escuetan zera mala oraindic orea. Carmeliten Piora zan, eta esan oi zien bere alabai: «Esqueiñi zaiozute eguiten dezuten guzia, eta eguiñ itzatzute gauza guziac berari atseguñ emateco gogoarequiñ, eta urreratu zaitezte beldur gabe Mai Sagradura.»

«Eta ala, dio San Ligorio-c, Comunioraco prestatzeco dembora guchi dezute-



nian, beste gauz onen bat eguiten edo zuen bizitzaco eguinquizun premiazcoren bat betetzen dembora juan zaitzutelaco, eztezazutela utzi orregatic Comunio Santua. Bacarric iduqui ezazute contu andia, alperricaco izqueta eta eguinquizun, bereala bear eztiran guziac, uzteco.»

Biotz oneco San Franzisco Sales-coac osotzen ditu jaquindurizco oarpide oec, eracutsiaz bere *Deboziozco bizitzaraco sarreran*, zer dan, guzioc eguitea deseatu bear litzaqueana, gai onetan.—«Echeratu zaite aleguiñaz goiz, aurreragoco gabea, era onetan bacardadean paquez orazio eguin dezazun. Elizara juatean, esqueiñi zaiozu Birgiña guziz Santari zure Comunioa, eta ondorean artu ezazu amorioarequiñ, amorioz ematen zaitzuna.—»

Zaude ziur, gai onetan nai izatea dala al izatea, eta eguiatz nai danian, beti arquitzen dala prestatzeco eta comulgatzeco era. Clase eta edade guzietaco persona asco eta asco, zirudienez, inolare maiz comulgatu eziñ zitezquenac, ezagutu ditut, ala ere, artaraco zeucaten egarri andiaren bidez, maiz comulgatze-



co era arquitu izan dutenac. Ezagutu nuan mutill gazte gaisso bat, bere guraso zacar eta religio gabeac oso gogor eta gaizqui tratatzen zutena, religioac jartzen ziozcan obligazioac cumplitzera zijoan guzian, eta ala guziz ere, aiñ ederqui eratzen zan, nun lenengo Comunioa eguiñ zuan ezquero, eziñ esan dezaquet, utzi ote zuan igande bat edo beste Comunio Santua artu gabe. Jaiquitzen zan egun sentia baño len, ateratzen zan echetti issill-issilic, juaten zan Elizara, comulgatzen zan, bereala ematen ziozcan esquerrac Jaunari echeruntz zijoala, sartzen zan bere guelan, etzaten zan berriro oian, bere gurasoac conturatu gabe, semea echetti atera zanic. Baita ere ezagutzen ditut Paris-en, familietaco guraso, emacume asco, egunero, ala neguan nola udan lenengo mezatarra joaten diranac, guziz goiz echera biurtzen dirala, ezertan ere ez faltatzeco, ez beren senarrai eta ez beren umeai.

Iduqui ezazu onelaco borondate ona; iduqui ezazu onelaco fede irazequia, eta ala arquituco dezu, bear dezun asti guzia, Comunio Santua maiz eta ondo ar-



tzeco. *Vade, et tu fac similiter.* (Zoaz eta eguiñ ezazu ori bera).

## VII

EZTET SENTITZEN GOZOTASUNIC COMULGATZEAN;  
BESTE GAUZATAN PENTSATZEN, ETA DEBOZIO  
GABE EGOTEN NAIZ.

San Pedroc, ezagutu zuanean, eguin zuan arrantza miragarriaren bitartez, chalupan sartu zan aren Santutasun eta Magestade Jaincozcoa, auspeztu zan bere oñetara, esaten ziola: *Exi á me, quia homo peccator sum, Domine.* Aldendu zaite, Jauna, nigandic, bada guizon peccatari bat naiz. Baña Jaunac erantzun, zion: *Noli timere* (1). Etzaite beldurtu.

Etzaite beldurtu zu ere: zure biotza Jaungoicoarequin dago, eta nai du Bera ondo serbitzea. Orisse bacarric da escatzen zaitzuna. Zure oarcabe-aldiac humilldu bear zaituzte, bai baña, beldurtu, ez; zaude ziur, aldi oiec ez oi dirala izan borondatezcoac, eta beragatic eztizutela quentzen Comunioen frutua. Borondate onari, Comunio ona.

(1) Evang. de S. Luc. cap. v. v. 8,



Santua● berac igaro bear izan dituzte tristeza oiec, samintasun, eta zu quejatzzen zaituan sentiduetaco atseguiniñ eza. San Bizente Paul-coa egon du zan bi urte osoan espirituco legortasun aiñ andiarequiñ, nun eziñ eguiñ izan zuan fedezco acto batere; eta nola beste aldetico deabrua aprobechatzen zan aren egoera negargarriaz, tentazio gogorraquin bera beldurtzeco, Santu gaissoac ipiñi zuan bere biotzaren gañean, artaracosse esribitu zuan *Credoa*, eta eramaten zuan, sotanan josiric, eta eguiñ zuan, beiñ betico, Gure Jaunarequin tratu bat, escuarequiñ Credo ura uquitze bacoitzac babilio zezan, eguiñ ezin zuan piedadezco acto batec adiña. Fedean sendo zegoala, jarraitu zuan bere obra on guzietan, Meza egunero ematen zuala. ¿Zer derizquiuzu? ¿Onac ote ziran bere Comunioac?

Fenelon-ec igaro zituan bere azquene-co urteac era onetaco atsecabez quejatzzen zala, bada esribitzen zion Beauvillers-co Duque bere adisquide onari: «Arquitzen naiz animaco legortasun andi batequin, eta paque, naicua samiñarequiñ.»

Onelaco pruebac izan oi dira Jaungoi-



co gure Jaunac dauzcan bideac bere serbitzari eguiazco guziac purgatzeco. Santa Teresa-c dionez, anima atsecabetu auentzat sendagairic onena da maiz comulgatzea.

Gañera Aldareco Sacramentu Santuac eguiten du frutua animan norperac ezagutu gabe, San Lorenzo Justinianoc dion bezela; eta San Buenabentura Eracusle andiac dio: «Oztazun puscaren bat eta debozioric-eza sentitzen badezute ere, eztezute utzi bear Comunioa, bada zembat eta gaizquiago zaudeten, orduan eta bearrago zaitzute sendaquiña» (1). Egun batian esaten ziran apaiz birtute-tsu batec: «Beldur guchiago ematen dit prestaera oso gabe comulgatzeac, Comunioa alde batera oso uztiac baño, bada gaitza ezta eriotza beziñ charra.»

Comunio Santua da Jaungoicoaren amorioaren sutegua; zembat eta otz gueiago dezuten, aibat eta gueiago urreratu bear dezute Jaincozco sutegui onetara.

¿Nore daqui, zu mimberatzen zaituan

---

(1) S. Bonav. de Perfect. relig. c. 21.



legortasun ori, ote datorren benturaz zure biotzaren animo guchitic, edo zure piedade zerecoieguitic? Comunioetan, eta gueiembat orazioetan, pensa ezazu besteacgan, zugan baño gueiago. Icusi-co dezu, nola caridadeac ecarrico dizun zoriona. Biotza zabalduco da, zure anaien salbazioagatic, peccatariaac Jaungoicoagana biurtzeco, eta fedea gueitzeco aleguiña eguiten duan aimbatean. Besteac gatic escatzean, sumatuco dituzu zugan, zerorregan pensatzean sumatuco ez dituzun bezelaco sentimentuac eta atenzioa.

Azquenic iduqui bedi gogoan, atseca-be auec, gueienetan izan oi dirala tentazio bat. Deabruac aurrez aurre guerra eman eziñ digunian, eguiten digu gulditu gabe, trabac jarriaz eta beldurtuaz. An onela izanic, izan bear degu bera baño asmotsuagoac; ¿eguiten du al guzia, gu beldurtzeco, eta guri ernega erazitze-co? Beragatic gauden sendo; eta dembora asco baño len etorrico da consueloa.



## VIII

EZ NAIZ ATREBITZEN MAIZ COMULGATZEN, UTS  
EGUITEETAN BETI BERDIÑ ERORTZEN NAIZE-  
LACO.

¿Eta uste dezu, guchiagotan comul-  
gatuta ohea izango zerala?

Baldiñ oitzen dezuna jantare, indar-  
gabetzen bazera, ¿zer izango da utsa edo  
guziz guchi jaten badezu? Orduan etzera  
egongo indar-gabe, baizic gosiac ilco  
zaitu. Indartsuen oguitic urrutiratzen  
zoazen bezela, gueituco da argaltasuna,  
eta orduan saminduco zaituzte ez baca-  
rric gaurcoac bezelaco utseguite ariñac,  
baizican eguingo dituzun pecatu guziz  
andiac. «Egunero pecatu eguiten det,»  
esaten zuan San Ambrosio-c, Santo To-  
mas Aquino-coac dionez: «egunero peca-  
tu eguiten det, eta egunero bear det  
sendagaia.» *Quotidie pecco, quotidie re-  
medio indigeo.*

Ausse izan zan aditzera eman ziona  
Birgiña guziz Santac, Santa Franzisca  
Erromacoari, bere comunio guzien bu-  
ruan ere, guchi aurreratzen zala uste iza-



nic, beldurturic zegoan demboran, esaten ziola biguntasun andiarequin: «Nere alaba; erortzen bazera ere utseguiteren batzuetan, eztezu oiecgatic Mai Sagra-dutic urrutiratu bear; baizic guziz bestera, orduan ta gueiago urreratu bear dezu, bada Aldareco Sacramentu guziz Santuan arquituco dezu zure premi guzien sendagaia.

Comunio Santuac, oraindic egunero artuta ere, gordeco gaitu bai pecatu larrietatic, baña eztigu quenduco pecatu eguiñ al-izatea. Munduan gauden bitartean, pecatu eguiñaz gabiltza; eta gure arteco onenac ere eztaucate eguiaz beste gauzaric, baizic gaiztaqueri guchiago iduquitzea. Artu dezagun pazienza, gueron buruai sufrituaz, bada Jesusec sufritzen digu.

Ala eguiñ izan zuten Santuac; ala eguiten zuten lenengo cristauac ere. Comulgatzen ziran egunero, eta ala ta guziz ere gu beziñ argalac ziran. Auec guziac Santuac ziralala uste duana, dago beguitazio andi batean. Apostoluac utzi dizquiguten liburu eta Elizaren lenengo demboretatic guelditzen zaizquigun bes-



te ezagun garriac ori bera arguiro eracusten digute.

San Pablo Apostoluac carta guzietan aietaco ascori botatzen dizquie arpeguira beren arteco aserreac, egoarriric-eza, esquer charra eta ardura gabetasuna: aurquezten dizquigu Erromaco cristauac, andic iguesi dijoazela persecucioen beldurrez. San Zipriano, quejatzen zan samintasun andiarequiñ fedean oztuaz zi-joazelaco, baita ere, arriscua urreratzean, fedea ucatuaz, ematen zituzten escandaloaz: San Agustin eta beste santu batzuec adierazten dituzte argaltasun oecberac. Icusten da bada lenengo cristauac zeudela santutasunetic urruti eta ala ere diot berriro, egunero comulgatzen zira-la. Aita Santu San Anacleto, San Pedroren ondorengoetan irugarrenac, esaten digu, Apostoloacgandic zuzenean zetorrena dala erreguela ura «*Sic et Apostoli statuerunt*» eta zala Erromaco Ama Eliza Santaren dotriña: «*et sic sancta tenet Romana Ecclesia*» (1).

Eguneroco Comunioac etzien quen-

---

(1) Const. Apost. Summa. 3.<sup>a</sup> parte, q. 80, art. 10.



tzen pecatu eguiteco almena, baña santututzen zituan asco; libratzen zituan pecatu andiac eguitetic, eta beraren bidez asco eta asco eldu ziran birtuteric goienetara.

Orisse bera guertatuco zaitzu zuri ere gai onetan. Santutasunic andienera eldu gabe, Comunio Santuac guchituco ditu poliqui-poliqui zure utseguiteac, eta eramango zaitu igarrire gabe santutasun eta jaquindurian aurrera.

Etzaitte arritu mudantz au egun baten eziñ eguiñ al izateaz. ¿Zembat urtec igaro bear dute mutill bat guizon izatera eldu baño len? ¿Icusten da benturaz azitzen? Ez eguiaz; eta ala ere daquigna da egunero zerbait azten dala: da lan ezcutuco bat, baña guziz eguiazcoa, eta eguiten duan jatordu bacoitzac ematen dio orretaraco indarra.

Lengo utseguiteetan berriro erortzeac ere etzaitu arritu bear. Santutasun eta Comunioac, osotzen badute ere gure naturaleza, eztute deseguiten; bacoitzac dauca beregan bere buruaren jabetasuna eta bere utseguteric andienen sustraia, Jesucristogandic datorquion santutasun



guziaren buruan ere. Sustrai au da dea-bruac billatzen duan alde argala, beti probéchu ateratzeco; eta emendic datoz erorquera berri, zorigaitzean ugarieguiac diranac, cristauac necatu eta humillatzen dituztenac, baña ez dute orregatic beñere gueiegui beldurtu bear. Baldiñ seguru egon al bazindezque, eztezula pecatua maite, eta nai dezula serbitu leialtasunez Jesucristo, etzaite beldurtu eguneroco utseguite oiec gatic; comunioac quenduco ditu, len, Trentoco Conzilioaren dotriña eguiazcoa azaltzean, esan degun bezela.

## IX

MAIZ COMULGATZEN BANAIZ, BELDUR NAIZ ICARATUCO EZ OTE DIRAN ETA ESCANDALOSOTZAT IDUQUICO EZ OTE NAUTEN, EZAGUTZEN NAUTENAC.

Goazen arguiro: ¿zé jende dira oiec? ¿Ote dira benturaz Jaungoicoaren gauzetan itz bat ere entenditzen eztuten cristau-erdizco talde, deboziozco gauzaren batzuec eguitearequin bacarric contentatzen dan ori? Badaquizu, nic bezela



zuc ere, oien jardunai zer caso eguiñ bear zaien. Utziezu berriquetan; oien gaizqui-iritzia da iya alabantzaric andiena.

Baña, ¿persona piadosoac dira? Eztezazula arduraric iduqui; oiee etzaituzte iduquico escandalosotzat; eztira arritucoco, zu, cristau onari dagoquion bezela bizitzeaz. ¿Badaquizu zerc ematen duan escandalo, maiz comulgatzen danagan? ¿Ote dira bere Comunioac? Ez da orrelaco gauzaric. Ondo eztirudiana da, Comunio guzien buruan ere, beren griñac aspiratzen icusten dan arduragabetasuna; ez izatea bere bizitza, persona religiosoai dagoquien bezelacoa; beren pazienziaric-eza, beren mormorretac, janedan gueieguizcoac, beren osasuna eta ondo izateaz iduqui oi duten contu aparta, eta beste aimbeste utseguite, usque-riac baño zerbait gueiago diranac, eta contzientziac ezagutu gabe utzi ezin ditzaqueanac, baldiñ santututzeco ardura apurcho bat jartzen badu.

Eztezala nai izan Jaungoicoac, baña baldiñ zere burua icusten badezu ispillu onetan, eguiñ ezazu al guzia erremedio



on bat jartzeco, eguiazco gaitz oni. One-la bazaude, eztezu utzi bear Comunioa, baizic artu arreta gueiago, bizitza santuago eta Jesucristo Gure Jaunari honra gueiago emango dion bat eguiteco.

Badaquit, oraindic cristau onen artean ere, badaudela adimentu chiquico guizon, edozer gauzaz escandalizatzen diranac. Eguiñ bear da aleguiña oiequiñ ez gaizqui jarzeco, baña beren esamezaz caso andiric eguin gabe. Zuc eguiñ naico dezun guziarequiñ ere eztezu irichico mundu guziaren gustoa eguitea. Saia zaite Jaungoicoari gusto ematen: iduqui ezazu beti gauzac ondo eguiteco intentzio leial eta zuzen bat; bildu itzatzu humillqui, guizon onac zure bizitzaz dauzcaten iritzi diferenteac, eta eguiñ ezazu aleguiña ateratzeco oietatic, al balitz, ondutzeco bidea. Zure dudatan, zoaz humill Jaungoicoaren asmoen berri ezagutu lezaquean Apaiz bategana, eta jarraitu itzatzu beraren eracutsiac.

Iritzi onetacoa zan Fenelon jaquintsu eta piadosoa ere; onec aconsejatzen zuan asco, maiz comulgatzea, esanaz: «Oitu eguin bear da icusten, pecaturic batere



ez eguiteco deseoric andienaquiñ ere pe-  
catu benialetan erorten diran cristauac;  
eta ala ta guziz ere egunero comulgatzen  
diranac. Etzaie beguiratu bear, Jaungoi-  
coac, humillatzeco uzten dizquigun ar-  
galtasunai, ain biziro, nun galerazico zai-  
gun icustea, eguneroco erremedio one-  
quiñ aldenduco ditugun utseguite andia-  
go eta peligrosoagoac.

«¿Zergatic escandalizatu bear da, icus-  
tean, beren argaltasunac garaitzeco, eta  
mundu galduaren tentazioai atzera era-  
guiteco, Jesucristo janaritzat artu nai  
duten cristau onac?»

«Utziezu juzga zaitzaten, ez, escanda-  
lizatzeco eta mormorretaraco beti prest  
dauden berritzalleac, baizic Elizaren es-  
pirituaz guiatuco zaituan eracusle arra-  
zoizco eta jaquintsu batec.» (1)

Zaitu ezazu contuz zure burua; escru-  
puluai eta lasaitasunai, biai desconfian-  
za berdiña izan zaiezu: berritu itzatzu  
egunero zure asmo onac, eta pensa eza-  
zu alic eta guchien iñoren zer-esangoan.

---

(1) Icusi bedi Fenelonec, maiz comulgatzearen gañe-  
an escribitutaco carta gaztelaniara biurtua 80, 90 eta  
95 garren orrialdietan.



X

BAÑA NERE FAMILIAC GAIZQUI IRITZICO LIOQUE  
MAIZ COMULGATUCO BANINTZ.

Eta zu; ¿zure familiarentzat comulgatzen zera, ala zerorrentzat? Esan zadazu; zure familiac gaizqui iritzico balio zue egunero jateari, ¿utzico zenioque orregatic janari?

Gurasoaganaco obedientzia eta familiaraco obligazioac gauza santu eta andibat dira eguiatz, baña ori da, familia berari tocatzen zaizquion gauzetan baccarrie sartzen danian. Nic ondo daquit, zembait aldiz obligatuac gaudela familiaracoai zerbait gusto ematera, oraindic Jaungoicoaren serbizioco gauzetan ere; baña onetan ere badaude neurriac, eta guzioc daucagu neurri oietatic ez aurre-ra igarotzeco obligazio estua. Sacramentuen ganian dauca aguinpederic guchien familiarac, eta ondoen eguin dezaquena da, uztea, contzientziaco eguinquizun andi ta contuzco au, Elizaren eta bere ministroen escuetan.

Comunio Santua da ontasun, gozotasun eta grazia guzien iturria. Maiz co-



múlgatzen bazera, ondo laster obetuco zera, eta familia izango da, zure obeasuna lenengo ezagutuco duana, eta nola bera izango dan conturic onena dacarquiona, eztizu iñolare eragozpenic ipinico. Iduqui ezazu prudentzia eta sendotasuna, eta zaude seguru, arquituco dezula modua, Sacramentu Santuac maiz artzeco, iñori ere zer esanic eman gabe.

Azquenic, baldiñ aleguiñ guziac eguinta ere, zure familiac badauzca esamesanen batzuec zure piedadeagatic, jarraitu ezazu paquean ezer ezpalitz bezela. Beguitantzioac juango dira aituaz dudaric gabe, edo beñepeñ oituco dira zu maiz comulgatzen icusten, beste gustatzen eztiran gauza asco icusten, oitzen diran bezela. ¿Nore daqui, Jaungoico Gure Jaunac sariatuco badizu ere zure leialtasun ori, bere amorio santura eracarriaz, gaur zu amorio artatic aldendu nai zaituzten persona aiec berac?

Errencolada auec escribitzen nagoan bitartean, guertatzen da orisse bera Paris-co salerosle edo comerciante, aberats religio gabeco, eta piedadezco edozeiñ eguiteren etsai andia dan batequiñ. Orain



urteren batzuec alargunduric, ipini zituan bere bi alabac, eguiazco cristautasunari dagoquion aziera eman zitzaien icasteche, edo colegio on batean. Zarrena, amasei urte cumplitu zitzaizquionian, eraman zuan echera, ango contua artu zezan. Alaba aiñ leial eta piadosa onec etzuan ala ere utzi batetan ere bere obra onic, baña eguiten zituan aitaren ezcuetuan, ura ez asarretzeagatic. Ala ta guziz ere, egun batian onec topatu zuan bere alaba, mezatatic zetorrela bere nescamearequiñ, eta artian barauric ausigabe. Gogoac emanic zer guertatzen zan, galdetu zion alabari: comulgatzetic al zetorren.

—Bai, aita; erantzun zion alabac, dudan egon gabe, eta erregutu diot asco Jaungoicoari bedorregatic.

—¿Eta maiz comulgatzen zera? galdetu zion aitac garratztasunarequiñ.

—Bai, aita; maiz comulgatzen naiz nere zori onean, oso maiz. Emendic ateratzen det bear dedan indar guzia, nere eguinquizun guziac betetzeco, eta batez ere izateco bedorrentzat, izan bear dedana.



Aita issilic guelditu zan apurcho batiñ, eta macurtu zuan burua; jaso zuanian, beguiac zeuzcan negar-malcoz betteric, eta bere alaba, aitac beziñ biguñ biotza zeucana, besartean arturic, esan zion issilchoric:

—¡Ay nere alaba! zeñ zorionecoa naitzen, zu bezelaco alaba bat iduquitzean.

Egun ura ezquerocoan, oso beste bat da salerosle ura, bere bizitzan eta bere iritzietan, eta oraindic osoro biurtu ezpada ere Jaungoicoana, laister eguiteco ichura guziac daude.

Familiasco biurtuco liraque Jaungoicoagana, arquituco balitz beren artian, Jesucristoganaco amorioa obraz azaltzen, eta maiz comulgatzen, leiala dan animaren bat.

## XI

EZAGUTZEN DITUT NIC PERSONA PIADOSO ASCO,  
OSO GUCHITAN COMULGATZEN DIRANAC.

Beguiria ezazu bada: nic eztet uste bat bera ere ezagutzen dedanic. Guziz bestera; maiz comulgatzen diranetatic,



ozta arquituco da bat edo beste eguiaz eta oso piadosoa eztanic.

Zuc irudide edo ideac nasten dituzu, persona piadosoac deituaz, guizon erregular baño gueiago eztiranai. Bizitza erregularra eta bizitza piadosoa eztira berdiñac. Guizon erregularra izateco, asco da Jaungoicoaren legueco aguinteac eta Elizarenac gordetzea, igande guzietan mezatarra juatea, jai andietan comulgatzea, Erligioa errespetatzea, eta honradu bizitzea.

Baña piadosoa izateco, da premiazcoa, gorago igotzea, eta Jesucristoren amorioan bizitzea. Cristaua eltzen danean piedadeco bidean sartzera, eztio beguiratzen obligaziozcoa dana cumplitzeari bacarric, baizic gañera eguiten du al guzia, Evangeliocon consejuac jarraitzeco, bere borondatia ucatu, bere salbazioan pentsatu, animac salvatzen saiatu, eta cristaua santu eguiten duten beste birtute guziac aleguiñaz bereganduaz; eta ordutic, gueiago eguiten du amorez obligacioz baño, eta artzen du oitura estimagarri bat, beguiratzeco Jaungoicoaren serbizioco gauzai, ez uztarri gogor bat



balira bezela, baizic semearen aitagana-  
co eguiñquizun atseguin baten moduan.

Esan zadazu: ¿ezagutzen dituzu ben-  
turaz cristau piadoso, oso guchitan co-  
mulgatzten diran asco? Au izango litza-  
que, azi gabeco frutua icusten dan le-  
nengo aldia, bada Eliza Catholicac adie-  
razten digunez, Comunio Santua gabe  
ezin arqui diteque piedaderic.

Eguneroco guertaerac eracusten digu  
egui au: janari on gabe eziñ izan dite-  
quean bezela inor osasun on eta sendo-  
coa, era berean, maiz comulgatu gabe,  
eziñ inor izan diteque piadosoa.

## XII

ONEN GAÑIAN ITZ EGUINGO BANQUIO NERE CON-  
FESOREARI, SEGURO NAGO EZ LIQUIDALA ON-  
TZAT EMANGO.

Ona emen contu guziz andiaz begui-  
ratu bear dan gauza bat, balio guziz an-  
dicoa, eta argui asco escatzen duana.

Lembizi; zure confesorea, ¿da dembo-  
ra berean zure animaren Guiaria? bada  
eztira berdin Guiaria eta Confesorea.

Confesorea da confesatzen gaituan



Apaiz jaun bat. Bere gurequingo eguitemcoa da bacarric gure pecatuac confesioan aditzea, eta barcatzea edo ez barcatzea. Orregatic iduqui ditzaque batec confesore bat baño gueiago.

Baña ezta ala guertatzen Guiariarequiñ: au da Apaiz bat, «amar millaren artian autua» San Francisco Sales-coac dioan bezela. Oni ematen diogu, gure anima bide onetic eramateco ardura, Jaungoicoa alic ondoen serbitu nai degunian. Eztago Guiari bat artzeco obligazioric; eztu Elizaco legue batec ere aguintzen orrelaco gauzaric, baizic obequi bizitzeco conseju bat bacarric da <sup>(1)</sup>. Baña artzen danian bat, bacar onequiñ contentatu bear da. Aita bat bacarric daucagun bezela, ala eztegu iduqui bear Guiari bat baño gueiago. Baldiñ guerta oi dan bezela, Apaiz Jaun bat bera bada Confesorea eta Guiaria, orduan ez bacarric da gure contzientziaco Jueza, baizic baitare gure consejatzallea, eta gure bi-

---

(1) Bere gogoco guiari bat arqitu eziñ duanac onen ordañaz, beñepein lecu batzuetan, iracurri ditzaque contuz Sales-co San Franciscoren «Deboziozco bizitzara sarrera» eta bere «Carta espiritualac» bada santu oni deitu diozaquegu Guiariric onenetacoa.



de eracuslea, eta beragana, eta bacarric beragana juan bear degu gure dudatan.

Noiz ta nola comulgatu jaquiteco, artu ezazu zure Guiariaren consejua, baldiñ confiantza osoa beragan badaucazu eztago gauza arrazoizcoago eta catolicoagoric; baña iduqui ezazu beti gogoan, Guiaria eztala nagusi bat, baizic bacarric consejatzalle bat, eta bacoitzac eguin dezaquela derizquion bezela, eta eman bearco duala eguiten duanaren contu (1).

---

(1) Esatean Segur Jannac, Guiariaren consejuen contra comulgatzen diranacgatic, eman bearco dutela eguiten dutenaren contu, arguiro aditzen ematen du itz beldurgarri auequiñ, onetan arquituco duten peligroa.

Espirituco Eracusle Santa Teresac, esaten digu onen gañian (Fundazioetaco 6 garren capituloan.) ¡O! ¡Baldiñ norbait badijoa comulgatzera, bere confesoreac ez comulgatzeco esan ta ere, enuque nic naico andic ateratzen duan meritua. Gauz auetan eztegu gueron juezac izan bear! Ascatzeco eta lotzeco escubidea daucanac izan bear du Juez. Nai daquiola Jaungoicoari, gauza balio aiñ andico auec entenditzeco arguia guri ematea, eta lagundu deguigula bere mesedeai ezquer charrez erantzun ezteguiegun.»

Eta gorago esan zuan. «Jaungoicoari contentu emateagatic bada, badaquite, sacrificioarequiñ baño gueiago contentatzen dala obedientziarequiñ. Eta au onela izanic, ¿zergatic bada estutzen naiz? Iduqui bedi gogoan, Santa Teresac dionez, gueiago irabazten duala comunioa obedientziaz uzten duanac; eta beragatic, bere guiari onaren iritziaren contra comulgatzen da-



Ausse da ondo arguiro San Pablo Apostoloac eracusten duana; bada Comunio Santuaren gañean Corintotarraí itz eguitean, esaten die: «Esamina beza bacoitzac bere burua eta guero urreratu bedi misterio sagraduetara.» *Probet autem se ipsum homo, et sic de pane illo edat, et de calice bibat* (1). Ausse bera eracusten du Trentoco Conzilioac egoquitasun guchiago eztuten itz auequiñ: *sibi conscius* (2).

Au onela izanic, maizago edo bacanago comulgatzeco baimena Guiari espiritualac ematea edo ez ematea, ez da contzientzian obligatzen duan legue estubat, baizic conseju bat. Comulgatzeco

---

nac, guchiago irabazten duala; eta benturaz galdu eguiten duala.

Au ezta Monseñor Jaunaren iritziaren contra, bada onec, bacarric itz eguiten du guiari sistematico edo benturaz jansenistaren gañian, párrafo onen azquenean aditzera ematen dan bezela, bada confiantzazcoa bada, berac esaten du, Comunio contuan aditu dedilla aren iritzia.

Nola eztan erraza onelaco peligroric Españian arquitea, eta oraindic gueiago dana, beldur izateco dan, buru guchico personaren batzuec juatea comulgatzera, desobeituaz imprudentziarequiñ beren Guiariari, iduritu zaigu, ondo izango dala oarquera au, Eliz-aguintariac icusi dezan.

(1) Ad. Cor. 1.<sup>a</sup> cap. II, v. 28.

(2) Icusi bedi Concilioaco guertaera au eta bere esplicazioa Fenelon-en carten 83 garren orrialdian.



escubidea, naiz ta egunero comulgatze-coa, da bataiotic zuzen datorquigun, bere ondoren bat. Escubide au artu degu Jesucristo Gure Jaun beragandic, eta galderen bat edo beste gai onetan Apaiz jaquintsu, eta Elizaren Espiritua ondo ezagutzen duanen bati, eguiten badiogu, izaten da, bear bezela escubide onezaz usatzen lagundu deguigun, eta ez escubide au berac eman deguigun.

Nai badezu maizago comulgatzea, zoazquio Guiariari, esatera. Esaten du San Alfonso Ligorio, «maiz comulgatzeco deseoa penitenteac beren Guiariari aguertzea, dala artara laguntzeco motivoa. Jaincozco janari au asco aprobechatzeco artzen duan cristauari, gauza bearra, da janari onen gose andia iduquitzea; ala deseatzen eztuten animac probechu guchi ateratzen dute. Guariac, ezagutzean zure deseoa santu eta bizia, utzico dizu ziur, maiz comulgatzen, baldiñ gañera arquitzen bazaitu artaraco ondo prestaturic. Baldiñ icusten badu zugar epeltasunen bat, eta maiz ez comulgatzera ere errez conformatzen zerala, eztizu emango aurrera-



penic maiz comulgatzeco, eta guziz ondo eguingo du.

Ondo nai zuan Jesucristo Gure Jau-nac, eguitea Canango emacume ari, escatzen zion mesedea, eta ala ere obligatu zuan, maiz bere escaria berritzera; eta ala emacume onec irichi zuan bere zoriona, bere fede bizi eta escaera irazequien bidez.

Guiariac zer erantzungo dizun, contu atera dezaquezu, zedorrec esango diozuetic. Ondo daqui eziñ eragotzi deguizula Comunioric arrazoi justuric gabe, eta aconsejatzen dituan Comunioac baño icusquizun gueiago emango diotela Jaungoicoaren aurrian, eragozten dituanac.

Maiz comulgatzea, eragozten bazaitzu, beguira, ori dala bi arrazoigatic. Lenengoa penitentearen personari dagoquo, eta bigarrena Guiarenari. Lenengoa badaquizu zure animaren bizitza espiritualetic datorrela, ezagutzen dualaco Apaizac, zure bizitza eztala bear bezelacoa, prestaera obe bat iristeco. Baldiñ confesoreac aguintzen badizu comunioac bacanago eguiteco, eztaucazu nic esan



bearric, obeitu bear diozula humill eta pazientziaz aguinte orri, baita ere saiatu, zuretzat mesedegarriagoa izango dan conseju bat laster merezico dizun bizitza eguiten. Contuan iduqui bear da, Guiari jaquintsu batec oi dauzcala ascotan arrazoi guziz onac, onela probatzeco berac guiatzen dituan animac.

Baña baldiñ Guiariac eragozten badizu, berecauz, comulgatzea, bacarric bera ez talaco maiz comulgatzeari ondo derizquiona, berealatic esaten dizut, Santu guziaquiñ, Elizaco guraso eta Elizarequiñ berarequiñ, Guiari orrec ematen dizun consejua ez tala ona; Eliza Catolicaren juzgu seguruai baño balio gueiago ematen diela bere buruzco iritzi segurua ez tiranai, eta ondoen eguingo dezu na dala, billatzea beste Guiari obe bat. Apaiz ona izanagatic baditeque Guiari ona ez izatea; ezta asco ona izatea, animac ondo guiatzeco. Asmabide guzien asmabidea deitzen dio San Gregorio andiac jaincozco eguinquizun oni, eta beronec escatzen ditu jaquinduri guziz sendoa, eta berezco eta graziazco doairen batzuec; baña eziñ izan diteque doai



oezaz apaindutaco Guiari asco arquitea. Animac bear ez bezela guiatzen eguiten diran utseguiteetatic, zabaldu dira Janseniotarren doctriñac, Eliz ascotan Mai Sagradua utsic guelditzeraño. San Luis Blois-coac dionez. «Quejatzan zan egun batian Jesucristo Gure Jauna, maiz comulgatzetic besteac atzeratzen zituzten aiezaz, guizonaquiñ egotean arquitezen ditudalaco dio nere atseguñac; beracgatic jarri nuan Aldareco Sacramentu guziz Santua, eta arrazoi onegatic animai eragozten dienac Sacramentu au artzia, guchitzen ditu nere atseguñac.»

Juan de Abila, Maisu Beneragarriac, San Franzisco Sales-coac eta Santa Teresa-c aiñ asco estimatzen zuten guizon Santu arc esan oi zuan, «maiz comulgatzea, chartzat ematen dutenac, deabruaren papera eguiten dutela, bada onec daucaquio gorrotoric andiena Sacramentu guziz Santu oni, animac emendic indar andiac ateratzen ditualaco santutasunean aurreratzeco.»

Apaizac eziñ eguin dezaque berac nai duana gai onetan. Elizac jartzen dizquio gorde bear dituan erreguelac, eta bere



contzientzian pecatu mortalaren bian jarraitu bear dituanac. Erreguela auec bildu ditu Elizac ots andico liburu batean, eta liburu au da, Eliz-guizon guziac ezagutzen dutena *Catechismus ad Parochos* deitzen dana, Conzilioaren aguintuz arguitaratu zana, Aita Santu Pio V garrenac contu guziaz aurriz icusi eta examiñaturic. Eta au izan zan eguiña, Apaizac icasi zezaten cristauai nola eracutsi. Au onela izanic, Trentoco Conzilioaren Catezismoac aitortzen du, Erretore Jaunac daudela contzientzian obligatuac, deitzera beren parroquiacoai, etorri ditezela comulgatzera maiz, eta oraindic baita egunero ere, animac, gorputzac bezelasse daucalaco egunero jateco premia: eta gañera diyo ausse dala Elizaco gurasoen eta Conzilio-en dotriña.

Baita ere San Carlos Borromeo, Milan-go Arzobispo andi eta miragarriac, bere contura zeuzcan emezortzi obispadu aientzaco *Catecismo*a arguitaratzean, jaquiñic bazirala Apaiz, dotriña oni trabac jartzen zizquitenac, aguintu zien Obispoai, castigatzeco gogor dotriña



onen contra erausten zutenac.

Icusi ezazu bada zein arrazoi gabea dan zu icaratzen zaituan beldur ori, eta nolaco injuria eguiten diozun zure Guariari, uste izatean, capaz dala eragozteco zuri, maiz comulgatzea, zuc zure aldetic trabaric jarri ezta ere. Esca ezazute eta artuco dezute; deitu ezazute eta idequico zaitzute.

Zure Guariac badaqui, segurutzen duala dembora berean zure eta bere zoriontasun beticoa, conformatzean onela Eleizaren erreguela santuaquin eta zure deseo onaquin. Santa Margarita Cortona-coac zeucan Guari bat, maiz comulgatzera asco animatzen zuana: Apaiz onura ill zanean, Jesucristo Gure Jaunac adierazi zion Santa Margarita-ri, sariandia eman ziola zeruan berari, maiz comulgatzeco, Santari errez aguintzean, iduqui zuan caridadeagatic. Aita Antonio Torres zeritzan Jesusen Compañiaco erligioso santu baten bizitzan iracurten da, illta bereala aguertu zitzaiola persona piadosa bati, eta esan ziola, Jaungoicoac gueitu ziola gloria zeruan, bere penitente guziaz maiz comulgatze-



co consejua eman izan zielaco.

Zorionecoa Eleizaren eracutsiac bere eguitecoetan beti jarraitzen dituan Apai-za, eta zorionecoac onelaco Guiari batengana Jaungoicoaren ontasunac eramaten dituan animac ere.

### XIII

NAICUA DA, JAIRIC ANDIENETAN, EDO GUEINAZ,  
ILLEAN BEIN COMULGATZEA.

Ez bacarric naicua, baizic gueigui ere bada, amorio gabe comulgatzen danian, edo cumplitu bear dan eguinquizun astun bati bezela, Comunio Santuari beguiratzen zaionian. Illeroco comunioa ona da dudaric gabe, baña orrequiñ bacarric Elizaren deseoac cumplitzia, eta piedadezco obra bat eguitea uste duana, utseguite batean dago. Etzuan orrela pentsatzen San Francisco Sales-coac, bada dio erabaquiro, bere animagatic beguiratu nai duan cristau on batec, guchienaz illero comulgatu bear duala.

Cofradia, dotriñetaco escola eta eche on ascotan jarriric dagoan *illeroco Comunioa*, da *guchienez* eta *ez gueienez*,



eguiñ bear dana. Ausse bera da guertatzen dana asteeroco Comunionarequiñ Seminario eta Combetuetan; ala daucate jarria beren erreguelan, eta erreguela oiec eguitean iduqui izan dan espirituari jarraitzea, bear-bearrecoa da; catolicoen piedadeari dagoquion espiritua da, Elizac bezela, oso maiz comulgatzea deseatzan duana, eta beragatic nai izan du jarri muga bat, debozio guchico animentzat.

Erreguela eder oiec eta oietan aguintzen dana eguiteac, zer adierazitzen duan, ezagutuco degu, oien guzien gañetic dagoan beste erreguela batetic; au da, Elizaren eta Aita Santuaren dotriñatic. Aditzen eman degu dotriña sagra du au; eta beguira nola guzia, laburtzeco, sartzen zuan Aita Santu Benedicto XIV garrenac, itz guchi auetan: «Illeroco comunioa edozeñi aconsejatu leguiquio, eta asterocoa guchiri galerazi leguiquio.»

San Francisco Sales-coac, bere debozizco bizitzan ematen du asteero comulgatzeco consejo; eta beste Santu ascoc egunero eguitecoa. ¿Eztu naico



San Franzisco Sales-coac egunero comulgatzea? Santu onec chartzat ematen duana da, ez egunero comulgatzea, baizic eguneroco Comunioaz gaizqui usatzea, eta bere zalantza gai onetan sortuzan utseguite chiqui batetic; au da, San Agustiñenac zirala uste zan itz batzuetatic, baña etziran eguiaz Elizaco Aita arenac, baizic beste escribitzalle, Genuadio zeritzana; eta guchi ezagutua zan batenac. Eta eguiaz, izanic San Franzisco Sales-coa aiñ ona eta aiñ catolicoa, ¿nola eman zezaquean chartzat Elizac alabatzen eta consejatzan duan gauza bat?

Eztet ezagutzen gai onetan obrazco erreguelatzat ezer ere, Santo Tomas Aquino-coac Comunio Santuaren gañean esaten diguna baño arrazoizcoagoric eta errazagoric. Lenengo esplicatzen du dotriña Catolicoa eguneroco Comunioaren gañian, zimendutzat jarriaz Elizaco gurasoen dotriña, eta batez ere San Agustiñen itz oec: «Ausse da eguneroco oguia; artu ezazute bada egunero; egunero probechu eguin deguizuten; baña bizi zaitzte dembora berean egunero artzeco.



moduan,» eta ondorean dio Eracusle arc: «Ezagutzen duanian persona batec, icuasiaz gañera, eguneroco Comunioac guezitzen duala bere biotzean Jaungoicoagnaco amorioa, eta eztuala guchitzen Sacramentu Santu onen ganaco errespetoa, egunero comulgatu bear du.»

Benturaz prestaera orretan arquitzen bazera, comulgatu zaite egunero. Naicua dala baderitzazu asteero Comulgatzea, ori ere eguin dezaquezu. Au izan oida cristau onac gueienetan eguiñ oi duten comunioa, Eracusle Santuac ondo eracusten duten bezela. Auei etzaie iduritzen maiz comulgatzea dala, astean iru edo lau aldiz eguiten ezpada.

Edozeiñ moduz ere etzaite oitu demborari beguiratzen, noiztic nora Comulgatu jaquiteco; baizic beguiratu zaiozu contzientziaco garbitasunari, bada emendic neurri bear dezu comunio batetic bestera igaro bear duan dembora, San Juan Crisostomoc dionez, eta San Agustinec dio onezaz gañera: «Maiz Comulgatzeco prestaera onean eztagoana, eztago urtean beiñ bacarric Comulgatzeco ere.»



## XIV

ITZ BATEAN: ORI GUZIA DA EGUIN EZIÑ DITEQUEN GAUZA GUEIEGUIZCO BAT.

Au ez bacarric da eguiñ ditequena, baizic baita ere guziz erreza, bada ala aditzen ematen dute orrela eguiten duten cristau ascoc: gueieguizcoa izango da Janseniotar edo erdi-Janseniotarrentzat, irichi eziñ ditequen prestaera Comunioraco escatzen dutelaco. ¿Zer eguingo guenduque orduan, egunero meza eman bear degun Apaizac?

Eliza Ama Santac consejatzan dituan gauzen artean bat bacarric ere eziñ izan diteque gueieguizcoric ez eta ere eguiñ eziñ ditequenic. Elizac ontasunian ematen digu eguia; eta berari aditzea Jesucristori bere aotic aditzea bezelasse da; eta aren consejuac chartzat uztea Jaungoicoaren arguia chartzat uztea bezela.

Asco arritzeco gauza da Jaungoicoaren eracutsiac aiñ ezereztzat dauzcaten catolicoac arguitzea. Saia zaitetze arrazoezcoac izaten zuen sinisteetan, eta sinisten dezuten guzia ondo eguiten. Si-



nisten dezu zuc eta badaquizu Jesucristoc itz eguiten dizula bere Elizaren birtartez; etzaite guelditu aditu eta ontzat emanarequin bacarric; bear dana da, eguitea sinisten dan guzia.

Utziezu mormorretan, eguiaren zale eztiranai. Utziezu aguertzen beren arrokerian, zér dan beren ustez Sacramentu guziz Santuaganaco errespetoa; bada berez ezta beste gauzaric, baizic beldurchar bat, adierazten duana, batetic Jesucristoren misterioen ezagüera guchia, eta bestetic norberaren iritziai oso ichachiric egotia. Zuaz zu paquean, Elizaren seme eguiazco bezela, Santuac idiqui diguten bidetic, eta Apostolu, Martiri Santu, eta lenengo demboretaco cristauen ondoren; San Dionisio, Antioquiaco San Ignazio, San Justino, San Zippriano, San Basilio Magno, Nazianzenoco San Gregorio, San Juan Crisóstomo, San Jerónimo, San Agustin, San Hilarrio eta San Gregorio Magno-ren ondoren; San Bernardo, Aquinoco Santo Tomas, San Buenaventura, Sena-co Santa Catalina, Genova-co Santa Catalina, Santa Teresa, San Felipe Neri, San Car-



los Borromeo, Loiola-co San Ignazio eta Jesusen Lagundico Santu guzien, San Franzisco Sales-en eta San Alfonso Ligorio-ren ondoren. Gerson, Fenelon, Bossuet eta beste, maiz Comulgatzea eguneroco Comunioa, eguiazco Comunio catolicoa alcarren leian alabatu duten ascoren ondoren, eta gueieguiric edo utseni bat eguiteco beldurric ez ezazu izan. «Poztu zaitetze Jaunagan; bai, diot berriz ere, poztu zaitetze» (1). Jesucristo-gatic bizi nai badezute, izan bedi Jesucristo zuen janari ugaria.

#### UMEAC MAIZ COMULGATZEA.

Umeen buru-arintasuna icustean, badiruri, batec pensatu bear duala, eziñ utzi ditzaquiela maiz Comulgatzen, eta Elizaren eracutsiac gai onetan, bacarric andiezaz itz eguiten dutela. Baña ala ere ezta ori orrela, eta ori da conta eziñ aibat anima gazterren ondamendia daccarren iritzi caltegarri bat, uzten dituala, amparu gabe, beren griña charrac

---

(1) Ad Philippo cap. IV, v. 4.



eguiten dieten guerraren escuetan.

Umeac, andiac bezela, maiz Comulgatu ditezque; eta ala eguiñ bear dute. Jannac ez tie escatzen, eman diozaquetena baño gueiago, eta ezagutzen du guc baño obequi, gu beldurtzen gaituan buru-arintasun ori, baña baita ere daqui, guc baño ascoz obequi, deabruac laster arrapatu nai duan tesroric estimagarriena, inozentzia dala, eta bacarric Comuniono Santuac gorde ditzaquela umeac etsaien sareetatic.

Esanic utzi degu, eztala beñere gueiegui comulgatzen, ondo comulgatzen danean, eta ondo comulgatzeco asco da salbatzallea artzea borondate on eta leial batequiñ. Au da gauza bat, aiñ ziurra umeentzat, nola guizonentzat, eta icusten degunez eztago gauza leialagoric lenengo Comunioa eguin duan ume baten borondatea baño. Amatzen dute Jesucristo, bera artzea deseaten dute: ¿zer gatic etzaie eman bear? Beren ontasuna ezereztzat badaucagu ere, asco aldiz guc baño mereziago dute Jauna artzea. «Utzi umeai nigana etortzen esan zigun Zeruco Maisuac-Zeruetaco erreinua oien an-



tzecoac diranentzat da.» Ceruco erreinua lurrean Comunio Santua da.

Esaten da umeac buru-ariñac dirala, baña arrazoi orregatic beragatic da gauza bearra, maiz comulgatzea. Ume barentzat aste bete illabete da; oien edadian biotz-muguidac elcarren ondoren biziro eta agudo igarotzen dira, eta gauza bearra da cristauari dagozquion mugualdiac maiz berritzea, fedean sendo izango diran guizonac aurreraco prestatu nai badira.

«Umeac buru-ariñac dira.» Eguia da; baña onac eta maitatiac ere badira; maitatzearen premia dute, eta eracutsi bearzaie zér maitatu; Jesucristo maitaerazi bearzaie; au bear-bearrecoa da, eta orretaraco berarequiñ elcartu bear dira. Beren utseguiteac, eguiazcoac badira ere, eztira irauncorrac eta debozioac eragozten du, utseguiteac oitura char biurtzea.

Cristaua dan ume batec, igande eta jai guzietan comulgatzeco oitura izan bear luque, lenengo Comunioa eguin ezquerocoan, baldiñ bere animaren Guariac, bere gurasoac edo maisuac icusten ezpadute arguiro umeagan onetaraco bo-



rondate onaren faltaren bat. Eta oraindic orduan ere contuz ibilli bear da, comunioa galera zotzeco, bada bestela bereala arquiteco du oitura onac galtzeco arriscua, ama baten biotza icaraz izozturic uzten duana, eta bacarric Comunio Santuaren bitartez seguru aldendu ditequena. ¿Nai dezu zure semea inocente eta garbi gordetzea? Anima ezazu maiz comulgatzera, edo beñepein, bere animaren Guiariac aguintzen dionian, obeitzera (1). ¡Guraso asco, gaizqui entenditaco zelo baten bitartez, eltzen dira beren umeen ondamendiaren asiera izatera, berac ala, nai eztutela! ¡Ezagutuditut asco, berai beldur aiñ andia ematen zien ondamendi orretara zuzen eta modu negargarrian beren umeac eramandituztenac! Eztiozu beldurric izan bear zure semea maiz comulgatzeari, baizic

---

(1) Umeac eta gazteac, danic eta onenac izanta ere, gure iritzian obeitu bear diote humilltasun guziarequin beren animen Guiariari maiz comulgatzeco gai onetan. Iduqui bitez gogoan Santa Teresac, bere Fundazioetaco 6-garren capituloan bere erligiosaz itz eguitean ematen dituan arrazoiac liburu onen XII-garren zaitiari jarri zaion oarpidean, eta iracurle onac erraz arquiteco dituan arrazoiac egui an ezagutzeco.



comulgatzeco naguitasunari, eta Sacramentu onenganaco debozio guchiari. Jaungoicoagandic aldentzen danean ume bat, edozein gaiztaqueri eguiteco zori beldurgarrian guelditzen da.

—«Baña gure beldurra da aurreracoagatic: obe da lenengotic gueldi juatea, guero atzera biurtu bear izatea baño, bada au beti da penagarria.» ¿Baña zergatic atzera biurtu bearco dute, zergatic utzico dute Jaungoicoaganaco amorioa, ume aiñ on eta deboto oiec? ¿Ezta benturaz bideric seguruena, guero cristau onac izateco, gatzetatic debotoac izatea? Nai badezute, zuen semeac aurreracoan gaitzari jarquitzeco indarra iduquitzea, utzi eguiozute edaten asco, guziraco indarra duan iturri onetan; utzi eguiozute elcartzen leialtasun guziaren sustiarequiñ. Bere oraingo ontasuna izango da, gueroco ontasunaren prenda, eta bere errugabetasun edo inozentzia gorde izatea, izango da zuentzat eta beretzat inozentzi garbi baten egun-sentia.

Baldiñ Comunio Santua artuta ere guertatzen bada, ascotan gazteac peccatuan erortzea, ¿zer izango da, ematen



ezpazaie «birgiñatasuna sorterazten duan Ogui sagradu au»? Illean Comunio bat naicua izango zaien umeac, guchi izango dira, eta asteeroco Comuniotic probechu andia ateraco eztuanic, eztirudi iñor izango danic; nic uste det premiazcoa dala araguiaren atseguñetaraco griña andia dutenentzat. Ala ta guziz ere uste det, amalau edo amabost urtetara eldu arte, guchi dirala, astean beiñ baño gueiagotan comulgatu ditezquenac; baña Jesucristo gure Jauna asco amatzen dutela, beren buruac contuz zaitu, eta pecatutic aleguiñaz aldentzen diran guziaz, comulgatu ditezque bi edo iru aldiz astean.

Elizaren lenengo eundi edo sigloetan Comulgatzen ziran egunero ala umeac nola andiac<sup>(1)</sup>. Aldareco Sacramentu guziz Santutic ateratzen zuten cristauac, Elizari amar amabi eta amabost urteco martiriac eman diozcan bizitza santuaren indar, eta orazio eta fedezco espi-

---

(1) Ez bacarric comulgatu eguiten ziran umeac, baizican, Ogui Consagratutic sobratzen zan dana ere ematen zitzaien. Eta oraindic bularreco umeai ere ematen zitzaien Ardo Consagratua.



ritua <sup>(1)</sup>. Jaungoicoaren besoa ezta laburtu. Orduco aziac orain ere frutu berdiñac emango ditu, eta umeai ematen zaien comunioac ernerazico ditu orain ere Santuac.

—Beldur guera, esaten dute azquenic guraso batzuec, gure umea beato biurtuco ote zaigun, eta azqueneraco apaiz eguiñ edo praille juango ote dan. ¿Eta zer? ¿Ona izan ezquero, nai ta nai ez izan bear du apaiz edo praille? Onetaraco Jaungoicoac deituco ote dien beldurra iduquitzea, da guraso cristauen uste-izate oquerreco bat, bada Jaungoicoari consagratzea, da zatiric onena, eta fameli guziarentzaco bendizioa; baña debozioari beldur izatea, da burugabequeriric andiena. Debotoa izatean dago eguiazco zorientasuna. «Guziraco da ona, Escritura Sagraduac esaten digun bezela, eta dauzca bizitza onetaraco eta besteraco promesac.» Eziñ beiñere izan di-

---

(1) Españiaco Elizac ditu ume santuric gueien. Sonatuenac dira: Alcala de Henares-co San Justo eta San Pastor. Santa Eulalia, amabi urteco martiría, San Pe-laio, Cordoban moroac martirizatua; Santo Domingo Bal-coa coruco umea, judioac Zaragozan illa eta Guardiaco umea.



teque debozioan gueieguizcoa ezta onegua ere. ¡Errucarrac, asmabide oiequin galtzen uzten diran umeac!

Utzi deguiegun bada umeai erligiozco libertade ori, bada onec bacarric idiqui ditzaque oien biotzac cristauari dagoquion bizitzan sartzeco. Eztaucagu escubideric, libertade ori quentzeco, eta ez ere estututzeco, batez ere Sacramentu Santuai dagoquionean. Saia gaitean berai eracusten, berac guiatzen, eta gure ardura guziaz aien ez jaquintasuna sendatzen; baña guziaz gain gure oarpi-de guziac izan bitez catolicoac, eta ez-titezela beñere eldu bere contzientziaco libertadeari trabaric jartzera. Bestela gure aguinpidez gaizqui usatzen bade-gu, animac ateraco dira bide zuzenetic, eta pensature gabe, jarrico zaizte trabac, Jaungoico Gure Jaunac anima oec-ganaco zeuzcan asmo santuai.

¡Ea bada! Umeac ere maiz comulgatu bear dute! Nai badira irichi guizatari cristau eta arretatsuac, comulgatu ditezela umeac. Comunio Santua da cristauac eguiten dituana.



GAZTEAC MAIZ COMULGATZEAREN GAÑEAN

Umeacgatic esan dedana, esan bear da arrazoi ascoz gueiagorequin, amaseitic oguei urtetara bitarteco gazteacgatic. Sasoi ori da eguiaz beldurgarria, griña charrac, munduaren ejemplo galgarrac eta beste campoticaco milla trabac eguiten dieten guerragatic. San Felipe Neric igaro zuan bere bizitza, Erromaco gazte-jendeari zeruraco bidea eracusten; aingueruen santutasuna eta demboraren eracutsiac ematen diote indar andia bere itzai, eta esan oi zuan, maiz comulgatzea, eta gañera Ama Birgiñari debozio izatea zala ez bacarric bidleric onena, baizic bide bacarra, gazte batec bere oitura onac eta fedezco bizitza gordetzeko, bere erorqueretatic jaiquitzeko eta argaltasunac sendotzeko.

Egun batian juan zitzaion estudiante bat bere billa, erregutuaz, lagundu zeguiola, menderaturic zeucaten oitura charretatic irtetzen. San Felipec consolatatu zuan, eman zizquion jaquindurizco consejuac, eta bere argaltasunen confesio humilla aditu ondoan, absoluzioa



eman, eta bialdu zuan pozez beteric, esanaz, juan zedilla bigaramonian comulgatzera. Baita ere esan zion: «Jaungoicoac eztezala nai; baña guertaco balitzaitzu, pecatuan berriro erortzea, atoz bereala nigana, eta ipini ezazu confiantza Jaungoicoaren misericordian.» Bigaramon arsaldean biurtu zan gazte gaissoa San Felipe-ren confesanariora, pecatu eguiñ-berri bat confesatzera. Guizon Santu onec, bigarren aldi onetan ere, lenengoan bezela, aditu zuan bere confesioa, esan zion, pelea zezala confiantza andiarequiñ, eman zion berriro absoluzioa, eta aguindu zion, aurreco egunian bezela, artu zezala Comunio Santua. Arquitzen zan gazte au, alde batetic oitura charraren indarrac, eta bestetic Jaungoicoagana biurtzeco deseoac guerra oso estu zera-billtela, baña guiari aiñ atseguñarequiñ eta maiz comulgatzearequiñ irichi zuan aiñ gogo indartsua, nun amairu egunez jarraituan etorri izan zan Santuaren oñetara, gogaitzen etzala au, eta ezta gazte damutua ere. Azquenic amorioa garalle irten zan, eta Jesus eldu zan bere serbitzari



leialen artean serbitzari berri bat idu-  
quitza; eguiñ zituan onec dembora gu-  
chian aurraperen andiac santutasunean,  
eta San Felipec nai izan zuan apaiz  
eguitea. Artu zuan Oratorioco Congrega-  
zioan, eta bere zelo eta birtuteacquiñ  
eman zuan ejemplo ona Erroman, eta  
oraindic gazte zala, ill zan santu bat be-  
zela. Atseguñ andiaz contactu oi zuan  
gazteac berac zer moduz izandu zan be-  
re Jaungoicoagana biurtzea, animatzeco  
pecatari gaissoac, eta aditzen emateco  
gazteai, beren salbazioa dagoala, maiz  
comulgatzean.

¡Ay zembat poztuco nintzaquean, eza-  
gutu erazi albaneie orisse bera gazteai,  
eta icusi albanitza guziac Jesucristo Gu-  
re Jaunaren Gorputza artzera juaten!  
Gaztea bere sasoe sutsuac jartzen du al-  
carren oso contracoac diran bi bideren  
artean: griña gaiztoco aragui onen amo-  
rio zorigaiztocola, bere deshonra eta ga-  
lera dana alde batetic; eta bestetic gaz-  
tea bera santutu, gorde, eta griña cha-  
rrac menderatutzeco indartzen duan,  
Salbatzallearen Gorputz guziz Santu eta  
beneragarriaganaco amorioa. Premiaz-



coa da esleitzea; eta bigarren amorio au  
nai ezpada, erorico da lenengoan. Eme-  
zortzi edo oguei urte dituanian, eziñ  
iraun dezaque garbitasunean, Comunio  
Santua gabe; guchiago berriz gauz one-  
taraco sendotasunean, eta inozenziaco  
indarrean; ez eta ere cristau gazte bat  
lurrean maitagarrien eta errespetaga-  
rrien eguiten duten birtute jaio-berri  
oietan.

¡Zer mudantza arrigarria eguingo li-  
tzaquean, gure colegio eta escolatan,  
sarritan comulgatzeco oitura jarrico ba-  
litz! Biotzari igüiña ematen dioten oitu-  
ra char oien lecuan, eta oitura charrac  
baño charrago dan erligioganaco ardura-  
gabetasun orren lecuan, icusico guendu-  
que, berez aiñ bizia, aiñ maitagarria eta  
talentu eta biotzez aiñ ederra dan gure  
gazteria, jaiquitzen dala sigloterdi one-  
tan zaartzan dagoan adimentuco ezer-  
eztasun orretatic, eta ematen dizquiola  
Elizari eta .erreinuari, beste dembora  
baten bezela, guizon andiac; Jesucris-  
togandic urruti, guzia igartzen da; ezin  
berdeberritu diteque ezer ere bere uqui-  
tu jaincozcoa gabe.



Eguiñac ondoen eracusten du, nola-  
coa dan Comunio Santuaren indarra gaz-  
tearen bizitzan. Eztago oitura charric,  
Sacramentu Santuac maizcho artu ez-  
quero sustraitic ateraco eztanic, ezta ere  
piztuera irichico eztanic.

Gazte, oraindic garbi zaudena, naiz  
ziquindua, zerana zerala: atoz comulga-  
tzera, eta au bacarric dezu asco garbi  
irauteco, edo, ciquin bazaude, garbitze-  
co. Sinistu zadazu; eztago gauza erreza-  
goric Comunio Santuarequin chau edo  
castoa izatea baño. Jesus gabe inolare  
eziñ dezaquezuna, erraz eguiñ dezaque-  
zu berarequiñ. Beguira zaiozu etorquizu-  
nari; aurreracoan guizon on bat izateco,  
premiaczcoa da ondo bizitzea gatzetasu-  
nean, eta zure honorea ondo ta seguru  
gordetzeco, esaten dizut berriro, eztago  
beste bideric Comunio Santua artzea  
baño.

COMUNIO SANTUA MAIZ ARTZEA AZITECHE EDO  
SEMINARIOETAN.

Iñun baño gueiago, Obispo Jaunac ja-  
rriric daucazquiten Aziteche edo Semi-



narioetan guziz maiz comulgatu bear da; bada auetara etorri oi dira, aldareen itzalpean bizitzera, guizaseme gazte esleituac, Salbatzalleac, bere neurrigabeco amorio eta ontasunagatic, deitzen diela, parte artu dezaten berarequiñ batean animen salbazioan.

Aziteche ascotan uzten zaie apaizgai gazteai beren escuan, maiz comulgatze-co griñari jarraitzea, bada ori da, pozgarrri santu eta graziaren ezagungarri bat bezela (1). Eta eziñ izan diteque beste moduz; Jesucristo Gure Jaunac bere amiora deitzean, deitzen die naita-nai-ez bere amorioaren Sacramentu onetara. Maiz eta ondo comulgatzea da, eta izan ere bear du Aziteche bateco lenengo erreguela, bada au gabe eziñ zimentatu ditezque deitz edo bocazioac, eta guchiago berriz zabaldu.

---

(1) Nola gure Azitecheetaco bizimodua dan beste le-cuetacoa baño estu eta zuzenagoa, eheco gauzac ondo juan ditezen, egoqui izango da, icasleac itz eguitea gai onetan, ez bacarric beren animen Guiariarequiñ, XII garren parrafoari jarritaco oarpidean (48-garren orri-aldean) esaten dan bezela, baizic baita Icasteche-co burutzac bertaco liburuac, edo Obispo Jaunac emandaco erreguela apartac jarrita daucanarequin, bere baime-na irichiaz.



Elizguizon izateco deitz edo bocazioa dago, guizaseme gazte bat, egunen baten Apaiz izatera eltzeco zorian jartzen duten doai eta birtute oietan. Doai eta prestaera oiec Jaungoicoagandic datoz, eta orregatic esaten da Apaiztaraco deitza dala jaincozco lezio bat. Baña deitz edo bocazioaquin guertatzen da, landareequin guertatzen dana: landare baten azia, eguiñ dezagun contu, lirioarena, azico bada, bere orriac eta lore ederrac zabalduco baditu, bear dira condizio batzuec, eta auec gabe, guzia galduco da; bear da lur ona, eguzquia, berotasuna, eta intza, guzitic bear da guchi edo asco; baita zaitu ere bear da contu andiarequiñ loreari eusten dion chortena, ausi eztediñ. Orisse bera guertatzen da Apaiztaraco deitzaquiñ ere. Azi ta frutu emango badute, ardura asco bear dira; guiari on bat, oitura santuac; auec gabe guzia alperric galduco da.

Azitechea da Elizac prestaturic daucan lurra, ara birraldatzeco, egunen baten beraren Ministro izan nai duten semeac; eta Comunio Santua da Jesucristoc maiteen dituan landare aiec biziric



dauzcan berotasuna eta sostentzen dituan zeruco intza.

Nic estaquit nola iraun dezaquen Aziteche bedoitegui edo nobiziadu eta naiz beste edozein erligiosoen ehec, aietan bizi diranac maiz comulgatzen ezpadira. Apaiz gai gazte bat, maiz comulgatzearen zale ezpada, nequez elduco da apaiz eguitera; eta era berean, maiz comulgatzeac zembat balio duan, eta zein bearra dan apaiz-gaiantzat, ezagutzen ez-tuan guiaria, izango da bere ezeguintz edo ofizioaren berri ondo eztaquian jardiñaria bezela.

Paris-co San Sulpizio-co icasleac, ezagun izan dira beti besteen artian, maiz comulgatzen zale izan diralaco. An bizi izandu nintzan bost urteetan etzan igarro egun bacar bat ere gazteren batzuec comulgatu gabe: ostegun eta iganderic gueienetan guziac comulgatu oi ziran, eta bazeuden asco, egunero edo egunic gueienetan comulgatzen ziranac. Ezagutzen det Frantzian Azitecheric andienetaco bat, Comunio Santuari esquer, frutu miragarriac ematen dituana. Umeric gaztechoenen artian ere, gueienac



astean beiñ guchienaz comulgatzen dira, eta oraindic debozio gueiago dutenen batzuec comulgatzen dira maizago. Beren icasquizunetan aurreren dijoazenac, comulgatzen dira iru edo lau aldiz astein, eta oraindic batzuec egunero ere bai. ¡Ay zer debozio eder eta atseguña, zer fedea, zer zuzentazun eta oitura garbiac eche bedeincatu artan!

Eleizac daucan premian, Jaungoicoac nai dizquio eman, era onetan, apaiz egui-azcoac, gure erligioac eracusten duan bezela, Ebangelioaren eta Elizaren es-piritu garbian, eta apaizac anime guzi-etan sar erazo bear duten Jesusganaco amorio biguñ confiantzadun eta egui-azco orretan azita.

ZEIÑ ONA DAN GAISSO ETA ATSECABETUENTZAT  
MAIZ COMULGATZEA.

Beti eta ingurune guzietan daucagu gure Jaunaren premia, baña premia au ondoen icusten da, atsecabe, pena eta sufriquizunetan.

Tabernaculoaren barrutic deadar egui-ten digu zeruco Consolatzalleac, esanaz:



—«Atozte nigana sufritzen eta nequez beteric zaudeten guziac; nic alaituco zaituztet.» Bera bacarric da gure malcoac legortzen dituana edo beñepein gozaten daquiana. Bera bacarric da, gure biotz gaisso atsecabatuari paquea ta esperantza, eta malcoaquin ondo datorren, eta bacarric cristauac ezagutzen duten alegria biotzeco, eta oso zerucoia ematen diona. Guerta diteque, cristau bat atsecabezco agonian arquitea, eta ala ere doacabea ez izatea.—«Negar eguiten det, esaten zuan ama batec, alaba ill ta bereala; negar eguiten det, eta ala ere pozic nago.» Egunero comulgatzen zalaco zan.

Jesusegan arkitzen degu beticotasuna, arkitzen degu Zerua. Guazen Bera-gana atzerri edo destierrua samiña eguiten zaigunian, eta bizitza, astuna iduritzen zaigunian. Guazen, mundua eta bere sufriquizunac, gurutze eta asorreac, eta desarrazoiac aztu erazitzen dizquigun bere Sacramentura. Jesucristoc berac eracutsico digu ondo sufritzeco modu ezcutatua, artuco du gure samintasuna, eta ordañaz emango digu paquea eta indarra.



Guazen Beragana, gorputzeco gaitza datorquigunian; Bera da Sendaguiñic onena, eta bere bisitac alaituco du gure gorputza eta dembora berean poztuco du gure biotza.

Gaissoríc dagoan cristau bacoitzac comulgatu bear luque astean beiñ guchi-enaz, eta au, gaitzaren asieratic. (1) Elitzaquio deitu bear gorputzaren sendaguiñari, animarenari aurretíc deitu baño len; zerua lenengo eta lurra guero; lenengo beticotasuna, eta guero dembora. Comunio auec, sendatzen bazera,

---

(1) Nola Españian eramaten zaien gaissoai Jauna zeremoni andiarequiñ, gaitz eguiten da asteero zeremoni ori eguita. Gaissoríc dauden cristau on oien mesedean, gaitztasun ori quentzeco, artu izan dira alderdi diferentiac, beguiraturic erri bacoitzaco oiturai, eta nola auec diran modu ascotacoac, dudaric arkitzen bada, ondoen izango da, galdetzia Obispo Jaunari zer eguingo dan.

Gueienetan eguiten dana da, eramatia Jauna egun sentian, issilsamar eta zeremoni guchirequiñ, au da, lau edo sei lagun, candelaquin argui eguiten dirala; bada bestela datoz castuac, iñor ibili bearrac, eta otsandiac, maiz egiñ bear bada; baña eguia da, aldan guzian eraman bear zaiela Jauna gaissoai zeremoni guziarequin.

Frantzian noia eztuten eramaten Jauna zeremoni onequiñ, Apaizac eramaten dute echetara apartean, au da zeremoni ori gabe. Eta uste orretan itz eguiten du liburu au frantzezez escribitu zuanac.



santutuco dituzte gaisoric igaro dituzun egunac, eta aurreraco probechugarri izango dituzu: eta iltzen bazera, prestatuco zaituzte Extrema-Unzio Santua bear bezela artzeco, eta beticotasuneco Jaungoicoa dan aren aurrean amorioaz oso garbituric aguertzeo.

Saia zaite mesede auec inguratzen zure seme-alabai gaisoric daudenian: Eliza Santac eracusten digu comulgaditezquela, eta ala eguiñ ere bear dutela, uso arrazoizcora eldu ezquero. Eta Aita Santu Benedicto amalagarrenac esaten digu «naicoa dala umeac zeruco janari au, lurreco beste edozeiñ janaritatic apartecotzat ezagutzea.» ¡Ai zeñ ederqui comulgatu oi diran gaisoric dauden umeac! Bataioco grazia aguertzen du oiegan indar miragarri bat, eta berac prestatzen ditu Comunio Santua artzeco, gure eguiñ alguziac baño obequi.

---



## AZQUENA

Iracurle adisquidea; ¿zer da zuc eguiñ bear dezuna liburu au iracurri ondoren? ¿Izango da premiazcoa, aurreracoan, zu egunero comulgatzea? Gai onetan, guziaz berdiñ, conseju bat ematea buruarinqueri andi bat izango litzaque, eta nere aldetic eztizut conseju ori ematen; au da eztizut esaten, egunero comulga zaiteala; eguneroco Comunioa bacarric aconsejatzen dizut, Jaungoicoarentzat guziori bizi bazera, eta aurrera ere ala bizi nai badezu.

Nere asmoa izan da, Comunio Santua zertaraco dan, eta nola onezaz baliatu bear gueran, ezagutzen ematea, zure biotzean eguneroco Comunioaren deseoasartzea, maiz ondo comulgatzen diranaz eguiten diran mormorretac eragozte; eta eracustea, ez bacarric beldurric izan bear eztiogula Comunio Santuari, baizic guzioc bear degula maiz comulgatu, eta erantzun esquer onez, guero ta gueiago, egunero Comunio Santua esqueintzen digun Elizaren deseoai.

Comulga zaite bada, comulgatu maiz,



eta aldeazun aimbatean, zabaldu zure inguruan, Jesucristo Gure Jaunac aimbeste deseatzan duan maiz comulgatze-co oitura. Utzi itzatzu alde batera etsaien esamesanac eta aguertu ezazu obraz fedea. Zoaz pauso sendoaz Santuen oñatzai jarraitzen. «Comulga zaite maiz, dio, San Franzisco Sales-coac, eta aldezun maizen zure confesorearen baime-narequiñ, eta sinistu zadazu, baldiñ gure mendietaco erbiac zuritzen badira neguan, elurra bacarric icusten eta bera bacarric jaten dutelaco, zu ere, edertasuna, ondasuna eta garbitasuna bera Sacramentu onetan janaaz eta adoratuaz, elduco zerala, betico eder, eta osoro on eta garbia izatera.»

SANCTE AC FREQUENTER  
*Ritual Romano.*

Barcamen edo Indulgentziac irabazteco asteeroco confesioaren gañian Indulgentzien Batzarre Sagraduac eracusten duana. (1)

Confesioa eta Comunio Santua aiñ dijoaz elcartuac catolicoen artian, nun,

---

(1) Indulgentzien Batzarre Sagraduaren erabaqui emen esaten diranac, Scavini-ren Theologia Moralis deitzen dan liburuaren bigarren zatitic artuac daude.



bata maiz eguitearen gañean esaten diran gauza ascoc, daucaten elcartasun andia bestearequiñ. Maiz confesatzen dana, maiz comulgatzen da, eta maiz comulgatzen dana, ezta gueldituco astean bein bederic guchienaz bere anima confesioco Sacramentuan garbitu gabe. Ala eguiten dute erligiosoac berac, eta baita egunero meza ematen duten Apai-zac ere.

Utseguite bat da, pensatzea, comulgatzen dan aldi bacoitzean confesatu bear dala. Badaude personac gai onetan ain beldurti eta escrupuluz beteac, nun ez bacarric nai duten comulgatzen diran bacoitzian confesatzea, baizic baita ere nai dute eguita comunio aurrechoan bertan. Galdetzen zaienian zergatic eztiran confesatzen aurreco arsaldean, erantzuten dute «eztirala atrebitzen, beldur izaten diralaco, gau artan bertan pecatu eguingo ote duten», pecatu benialacgatic Comunio utzi bear balitz bezela. Onen gañian naicoa da Segur Jau-nac esaten duana.

Comulgatu bear dan guzian eta orain-dic comulgatu aurrechuan confesatzeco



seta onetatic dator, gende talde andiac biltzea jai andietan confesanarioen inguruetara, eta ezin confesatu eta ez comulgatu al izatia batzuec, eta comulgatzea beste batzuec bear luqueen paqueric gabe, edo ta beranduegui, beren echeetan palta eguiten dutela. Emendic dator guero beste aldietan ez comulgatzera juatea edo bear bezin maiz ez comulgatzea.

Beste cristau on batzuec juaten dira confesatzera, maizago ere, irabazteagatic Elizac zembait aldiz, astearen barruan, deboziozco arrazoiren batzuecgatic ematen dituan indulgentziac, aguin duaz oiec ematean, «egun artan confesatu eta comulgatu bear dutela» indulgentzia irabazteco.

Cristau on auei aditzen eman bear diegu, indulgentzi oiec irabazteco, gauza bearra dala egun artan comulgatzea, baña eztala premiazcoa egun artan confesatzea, baizic naicua dala asteeroco confesioa.

Indulgentzia irabazteco asteeroco confesioaren gañian arkitzen ziran dudaren batzuecgatic, galderen batzuec egui-



ñic Indulgentzien Batzarre Sagraduari, erantzun zuan onec 1822.<sup>co</sup> Baguillaren 12.<sup>an</sup>, «naicua zala asteeroco Confesioa aste barruan eguiña, aste orretaco emanac zeuden indulgentziac irabazteco.» Berriz ere beste dudaren batzuen gañean galderen batzuec eguiñic, erabaqui edo Decreto orren gañian, erantzun zuan 1841.<sup>eco</sup> Abenduaren 15.<sup>ean</sup>:

1.<sup>o</sup> Itz auec: «aste barruan» (*infra hebdomadam*) aditzen ematen dutena, dala, festaren aurreco zortzi egunac, baña ez aste osoa.

2.<sup>o</sup> Confesio orrequiñ irabazi ditezquela, ez Indulgentzia bat bacarric, bai zic baita aste barruan etorri ditezquen beste asco ere.

3.<sup>o</sup> Aita Santuac, Indulgentzia ematean, aguintzen badu confesatzea eta comulgatzea egun artan, dala premiazcoa, indulgentzia irabazteco, ipiñiaz confesioa naita naiezco condicio bat bezela (*conditio sine qua non*) orduan ere irabazten dirala Indulgentziac, aste barruan aurraz eguiñdaco confesioarequiñ. Jaquiña da au bacarric entenditzen dala, Indulgentzia irabazi nai duana, gra-



zian dagoaneraco, bada grazian ezpada-  
go, eziñ comulgatu diteque, balio eztio-  
laco orduan asteeroco confesioac.

Icusten da bada, Elizac nai duala as-  
te barruan maiz comulgatzea, baña con-  
fesioaren gañian; uste du, naicoa dala  
astean beiñ eguitea, bear bezelaco zu-  
zentasun eta oituraz eguiten danian.





# EGUNEROCO COMUNIOA

---

## LENENGO PARTIA

---

Erretore Jaunac bear dute eguif aleguifia, cristauac, egunero gorputzari bere janaria ematen dioten bezela, era berean, aztu eztitezen, iduqui bear duten arduraz, Comunioco Sacramentu onen bidez animai ere egunero beren janaria emateco.

(Trentoco Conzilioaren agunduz arguitaratutaco «Catecismo Romano» izendatzen dan liburuan.)

Gure Aita Santu Pio amargarrenac nai du bere biotzeco deseoric bizienarequin, zabaltzea cristauen artian, aifia osasungarri eta Jaungoicoaren gogocoa dan oitura, egunero comulgatzecoa, eta beragatic ematen ditu 300 eguneco indulgentziac egunero, eta indulgenzi oso bat illaren azquenean, ondorengo orazioa egunero errezatzen dutenentzat.



EGUNERO COMULGATZECO OITURA ZABALDU DE-  
DIÑ EGUIN BEAR DAN

## ORAZIOA

¡O Jesus guziz gozoa! Zu etorri zera mundu onetara anima guziaz graziazco bizitza ematera eta bizitza onec iraun dezan, eta gueitu dediñ anima oietan, nai izan dezu zerorri izatea eguneroco beron janaria, eta eguneroco argaltasunaren sendagarria. Beragatic humilqui zure Biotz guganaco amorez, irazequigatic escatzen dizugu, issuri dezazula anima guzien gañera zure Espiritua. Pecatu mortalean dauden animai, eguin zaiezu Zugana biurtzeco eta graziazco bizitza iristeco mesedea; eta zure ontasunagatic graziazco bizitza onetan bizi diran zorioneco animac, eldu bitez debozio guziaz egunero, al dezaqueten guzian, Mai Sagradu onetara; eguneroco Comunioaren bidez, artu dezaten egun guzietan, eguneroco pecatu benialen contraco erremedioa, eta graziazco bizitza onen janari egunero animentzat izanic, eta berarequin gueiago ederturic, eldu ditezen azquenic, Zurequin baten zorio-



neco bizitza gozatzera. Ala izan dedilla.

1. *Jesusec deitzen dizu cristaua*, bere Biotzeco amorio gueieguizco arequiñ, egunero zure biotzean bera artu dezazun. Berac prestatu dizu Comunio Santuco mai au, bere azquenic gabeco ondasun, jaquinduri eta poderearen mirari, Aingueruac arritzeco diñacoac, eguiñaz. Berac esaten dizu bere Ordezcoaren birtartez, *eldu zaitzela egunero Comunio Santura, aldezaquezun guzian*. ¿Uste dezuz etzerala orrelaco mesede baten diña? ¿Eztezula merezi ascoz guchiagoric ere? ¿Baña arqitu da iñor, santuen eta aingueruen artian ere, beiñ bacarric comulgatzeco diña izan danic? Ezta bere Ama manchagabeco, Birgina guziz Santa ere, etzan izan ortaraco diña.

Comulgatzeco diña zanic beiñ bacarric comulgatu izan zan munduan, eta au zan Jesus, lenengo aldiz Sacramentu au eguitean comulgatu zanean. Orregatic bada, merezimentu eta diñidadean badago, ez zuc, ez Meza ematen duan Apaizac, eta ez Aita Santu Erromacoac ere; eziñ artuco dezute beñere Cristo Sacramentu onetan.



2. *Etzaita beldurtu*: Jesusen Biotzac esaten dizu, San Pedrori bezela, ondo izango dala berari uquitzea, eta bera artzea zure biotzean, era onetan cumplitu dediñ justizia guzia; da esatea, santutasuna ta justizia dan janari onequin egunero sendotu zaitzezela, eta azi zaitzezela eguiazco jaquindurian, despreziatuaz lurreco utsqueriac, jaquinduri orrec zure animan issurico dituan arguitasun eta deseo santuacquiñ; eta edertu dezazula zure anima, gueítuaz grazia: prinzipeen joia guziac baño gueiago baliio duan jaincozco doai ori, munduco apainduri guziac baño gueiago dan edertasun ori, pentsatu al litezquen zoriontasun guziaz gañetitaco jaincozco bizi-tza ori.

Etzaita bada beldurtu, arroqueriz eguiten dezulaco ustean; eztezu eguiten zere burua santutzat daucazulaco, baizic Santu izan nai zenduquelaco; ez Jaungoicoaren anditasuna ezagutzen eztezulaco, baizic zerorren premia ezagutzen dezulaco. ¡Zein gauza ederra izango litzaquean icustea lecu ascotan, probintziaco buru dan uri batean icusi de-



guna: eltzea egunero Comunio Santura andre bat, bere bost seme-alabacquiñ! Beguira ezazu, zuc, familiaco aita edo ama ona, ori bera eguiñ ote dezaquezun zure seme-alabacquiñ.

3. *Emaizcatzu esquerrac Jesusi*, neurrigabeco erruquiarequiñ animatzen zaitualaco. Poztu zaite, Jaungoicoac Comunio Santuaren triunforaco gorderio zeucan, eta Jesusen Biotzaren dan dem-bora onetan jaio zeralaco. Onetara zuzentzen da Jesusen Biotzaren adorazioa, munduaren azqueneco demboretaraco, adorazio guziaz gañeticacoa dana. Orregatic B. Margarita-ri eguiñ zizquion aguerraldietan, icusi zuan onec salbatzallea gloriáz apainduric Hostia consagraturan. Orregatic zuzendu zizquion andic Jesusec itz pozgarriac, aditzen emanaz bere Biotza caridadezco ichaso bat zala, eta bere debotoen artian beldurra-  
ren lecuan amorioa arqitu bear dala.

4. *¡Bai! Aita Santuaren itza da Cristoren itza.* Charrette generalac Aita Santuaren soldaduai esaten ziena, esan bezate Zelatariac, eta gueiembat Apai-zac «Aita Santuaren itzac, Jaungoicoa-



ren deia.» Catolicoa da soldadua eta Aita Santua da guzion Generala. Atseguin eman deguiogun, egunero orazio au errezatuaz, eta besteai ere papercho au emanaz, zabaldu dediñ Jesusen Biotzaren erreinua Aldareco Sacramentu Santuan, eta cristauoc eguin gaitezen, egunero Jauna artzeco diña. Umeac, uso arrazozcora eldu beziñ laster, oitu bitez orazioa errezatzen, eta eraman bitez bereala *lenengo Comunioa* eguitera.

5. *Bedeinca itzatzu, Jesusen Biotza, paper-orricho auec.* ¡Ay cristau onen zeloaren egoetan, Jesusen Biotzac uquitzen duan guziari ichasten dion espirituco usai gozoz beteric, sartuco balira orricho auec eche, escola, colegio, parroquia, comentu eta cristauac dituzten deboziozco liburu guzietan! Beren gain bendizio ugariac issuri itzatzu, Biotz jaincozcoa. Jechi bitez Zugandic orri auec, bizitzaco arbola eguiazcotic bezela, zure graziaz beteric, guzioc Zugana urreratu gaitezen, zeruco janari ori escatuaz. Mundu guziac, belaunicaturic, besoac gurutzean dituala eta beguiac zerurontz jasoric, escatu bear lizuque judioac Je-



sucristori bezela. «Jauna, eman zaiguzu beti ogui orretatic.» Bada Ogui ori da zerutic ecarritaco janaria, maná baño gozoagoa, bizitzaco arbolaren fruta baño obea, da animaren bizitza, betico bizitzaren azia, mirari-mordoa, graziaren iturria, griña charren sendagaia, adimentuaren arguia, biotzaren poza, munduaren salbazioa: zera Zu zedorri, Jesus guziz gozoa, Jaungoico biziaren Semea. Zeruco tesoro guzien artian aberatsena, eta guiza-arraza atsecabetuac daucan ondasunic andiena. Pozez beteric deadar eguiñ ezazu azquenic, cristaua, Jaungoicoaren amorioz irazaquitaco beste anima batec bezela: ¡Nola zerua izan diteque zeru, baldiñ an iñor comulgatzen ezpada!





## Gueiago eguneroco Comunioaren gañean

---

### BIGARREN PARTIA (dotriñacoa)

*Eguneroco Comunioa, lembizi ezta oitura berria.* 1. Jesucristoc ipini zuan, bada Apostoloac eracutsi zuten: lenengo cristauac, Escritura Sagraduac esaten duan bezela, «zintzoac ziran Apostoloen dotriñan eta oguia partitzen zanean elcarrequiñ artzen,» esan nai du, Comunio Santua artzen, eracusleac diotenez. «Zeruco ogui» au escatzen zuten, dio San Ziprianoc, Aita-gurea errezatzean, «eman iguzu eguneroco oguia.» Cristau batec gaizquiren bat eguiten bazuan, castiguric andiena zan comuniotic aldentzea. Gueroago Eliza Guzico Buruac agundu zuan, eragozpenen bat etzuten cristau guziac «egunero comulgatu bear zutela.» Apaizaz gañeraco guizasemeac artzen zuten Jesucristoren Gorputza escuico escuan, esquerrecoa bere azpian, tronu bezela ipiniaz, eta guero errespeto guziaz eramaten zuten aora. Emacumeac artzen zuten Hostia Sagradua, «dominical» deitzen zan zapi guziz garbi batean,



eta andic artzen zuten ezpañequiñ. Cristauac gordetzen zuten zeruco Ogui au beren echeetan, sasquicho guziz ederretan, gaissoai emateco, eta eramaten zituzten bere zatichoac, eremura edo beste bidaje luzeren batera juatian. ¿Eztezu icusten zeñ modu probechugarri eta santuan lenengo cristauac zeuden echecho bezela eguiñic Comunio Santuarequin?

2. *¿Eta zer arrazoegatic consejatzetzen zaigu oraiñ eguneroco Comunioa?* a) Cristoren borondatea dalaco, Apostoloac, lenengo cristauen ejemplo orrec, eta oraiñ Pio amargarrenac eracusten diguten bezela.

b) Bigarren arrazoia, adimentua pusca bat necatzen badezu, Sacramentu orren izate edo naturalezan arquituco dezu. Au izan zan jarria animaren janaritzat: eta beguira oraiñ: anima egunero dijoa indargabetzen berezco argaltasunagatic, eta bere etsaiac eguiten dioten guerragatic; etsai auec dira iru leoi amorratu, San Pedroc esango luquean bezela, eta gau ta egun inguratzen dute anima; beragatic egunero dauca Comunio Santuaren premia.



Oneo, zeruco janaria izateaz gañera, dauca oguiaren ichura, aditzen eman nai balitzaquigu bezela, eztala janari truca-corra, baizic eguiazco oguia bezela, eguneroraco ordaiñic eztuana. Azquenic, Sacramentu onen iduri bat, izandu zan maná. ¿Etzera oroitzen maná au erortzen zala goizero Israeltarren campamentuaren gañera? Eta Israeltarrac, maná oni esquerrac, juan oi zirala eremuan barruna pozic, eta gorputzeco gaitz guzietatic libre? Oroitu zaite oraiñ Cristoo onezaz gañera esan zuanaz: Zuen gurasoac jan zuten maná eremuan; baña alata guziz ere ill ziran; Ni naiz zerutic jechitaco Ogui bizia; Nic emango dizutedan Oguia (edo maná) da nere aragua munduaren bizitzaraco: Ogui au jaten duana, ezda beñere ilco.

Urreratu zaite anima ona Jaungoicoac maná miragarriago au gorderic daucan cristauen Tabernaculo onetara. Nuñez Albarez Pereira Condestablea, comulgatzen zan egunero, guerran zebillela, eta debozioan irazequitzeo, baliatzen zan, arma eta corneten otzaz, zu organuaren soñuaz baliatzen zeran bezela, eta esaten



zuan: «nai badezute ni, menderaturic icustea, asco dezute Comunioa galerazte». Persona erligiosoac comulgatu bear dute «guchienaz» beren erreguelac aguintzen duten aibat aldiz, eta ez erligioso eta ez apaiz eztiranac comulgatu bear dute Pazcoetan «guchienaz». (S. Congregacion de Ob. y Reg. 4 Ag. 1888.)

c) Etzaitte beldurtu engañuz zuazela-coan. Eleiza Santuac guiatzen zaitu, eta au da irugarren arrazoia, eta guiatzen zaitu Elizaco Guraso Santu eta Konzilioen bitartez. ¿Eguneroco comunioa gueieguia dala zure iritzian? Sinistu eguiozu gueiago San Agustini, adituaz, zer erantzuten dizun: «Ogui au egunerocoa da: egunero ar zazu, egunero aprobechatu deguizun. ¿Eztezula merezi zure eguneroco argaltasunagatic? San Ambrosioc erabaquiro diyo: Egunero Jauna artzea merezi eztuanac, eztu obequi merezico urtean bein artzea. ¿Gueiegui sentitzen dezula araguiaren sua, iraren indarra, eta griña char guzien iraquitea? Biotze-co sugue chiqui oiec, ezerequin baño obequi, San Crisostomoc dion bezela, iltzen dira, martiriac, confesoreac eta bir-



giñac sortzen dituan erari gozo onequiñ.

3. *Pecatu benialac eztingute eragotzi bear egunero comulgatzea.* Etzadazu bada esan, pecatu benialac dauzcatzulari izango litzaque esatea bezela, eztezula artzen sendagaia, gaisoric zaudelaco. Beragatic aditu ezazu, zer dan Comunio Santua Trentoco Conzilioac dionez. «Pecatu benialac barcatzeco eta mortaletatic aldentzeco sendagaia.» ¿Eztezu icusten nola, Trentoco Conzilio Santuac dionez, cristauac comulgatu ditezquen, pecatu benialac iduquiagatic? ¿Eztezu icusten, ala ta guziz ere, nola deitzen digun egunero Jauna artzera, esaten digula; «naico luque Conzilio Santu onec comulgatzea Meza bacoitzean, bera entzuten dauden cristauac, ez bacarric comunio espirituala eguiñaz, baizic Jaun Sacramentatua artuaz?» eta gogoratu bedi emen, lenago aguertu zuala cristauac egunero Meza entzuteco deseoa. Trentoco Conzilioaren deseo onetatic sortuzan Conzilioaren Congregazio Sagraduaren erabaquia, eragotziaz Obispoai, «siñalatzia apaiz eztiranai, ezconduai, edo tratalariai, egun jaquiñac, igandeac, as-



teazquenac eta ostiralac bezela, egun oietan bacarric comulgatu ditezen, egunero comulgatzeco oiturac bear dan errespetoa galduco ote zuan beldurrez ori eguiten bazuten ere.» Orregatic, Trentoco Conzilioaren dotriña eracusten zuan San Carlos Borromeoc, aguin-du zien bere Arzobispaduco Obispoai, castigatzeco gogor, *severe puniendos*, eguneroco comunioa ontzat ematen etzuten Erretore guziac.

4. *Santo Tomas-en dotriña*, pecatu benialian comulgatzearen gañian (III, 79, a, 8). Baldiñ pecatu benial igaroac, lenagoco egun edo momentuetacoac badira, eztute eragozten iñola ere, Sacramentuaren frutua. Baldiñ orduan bertan, zabarqueriz edo debozioric ezaz, eguiñac badira, eztute orduan ere eragozten frutu guzia; beti gueitzen da grazia; galtzen da bai, beste frutu, animaco gozotasuna dana. Eta beste lecu batean dio Santo Tomas-ec (In IV, Sent., dist. 12, q. 3, a. 2). Contu guziac ateraric, obe da Comulgatzea, ez Comulgatzea baño; naiz ta beguiratu pretaerari *quantulacumque sit* «dan guchiena



izan ta ere» (aditu ondo itz auec, con-  
tziencia estua dutenac) naiz ta comul-  
gatzean eguiten dan caridadezco obrari.

5. *Comulgatzeco, naiz ta egunero,  
bear dan prestaera.* Ez Apostoloac, ez  
Elizaco Gurasoac, ez Conzilioac eta ez  
teologoric jaquintsuenac escatzen dute  
eguneroco comunioraco beste prestaera  
premiazcoric, oraiñ esango dana baño;  
grazian egotea eta intentzio zuzena; au-  
da, Cristori atseguñ ematecoa eta ani-  
maren oneraco zerbait eguitecoa (Conc.  
Trid. s. XIII, c. 7.) Beste prestaera obe-  
bat, consejuzcoa da, baña eztago teolo-  
goric, (escribitzen du Gennari Cardena-  
lac) prestaera ori gabe comulgatzea, pe-  
catu dala eracutsico duanic. Prestaera  
obe onetan sartzen dira (grazian egoteaz  
gañera), pecatu benial jaquiñecotic al-  
dentzea, egunero zerbait ere meditatzea,  
eta comulgatzera dijoanean, meditazio  
orren eta liburuco orazioen bitartez fru-  
tu ateratzeco eran jartzea.

6. *¿Eta zer degu confesioaren ga-  
ñean?* Eztezazula uste izan, comulgatu  
aurretic beti confesatu bear dezula; ba-  
da orrela eziñ iñor ere comulgatuco li-



tzaque egunero, demboraren eta confesoreen faltaz; pecatu benialac barcatzen dira modu ascotara, eta baita comunioaren bitartez ere. San Agustiñec esaten dizu presta zaitezela comunioraco, pecatu benialac quentzeco, Aita gurea errezatuaz.

7. *Eziñ etsi det*, diozu, egunero comulgatu nindequela, gogoratzean San Luis Gonzaga-coa astean beññ bacarric comulgatzen zala. Baña jaquiñ ezazu orduan asteeroco comunioa, oraingo egunerocoa bezela zala; onen ezagungarria daucazu San Ignacio eta San Francisco Borja-coac sufritu zituzten persecuzioetan, asteeroco comunioa jarri nai izan zutenian. Jaquiñ ezazu ori bera, iracurri badezu, San Francisco Salescoaren liburu, «Deboziozco bizitza» deitzen dana.

\* \* \*

Familietaco gurasoac, escoletaco maisuac, animac guiatzeco contua dezuten guziac, eracutsi eguiozute zuen mendecoai, uso arrazoezcora eltzen diran beziñ laster, bizitzaco arbola ori. Jan era-



zi eguiozute bertatic egunero edo guziz maiz, batez ere gasteai, Don Bosco-eracusten zuan bezela; eta ala irichico dezute maisu aiñ zerutar eta miragarri orrec aguintzen zizutena; au da nagusiac, lanteguiac eta escolac, birtutezco zeru biurtzea.

Bedeinca itzatzu, diot berriz ere, Biotz jaincozcoa, orricho auec. Berac gatic, anima bat badare, gueiago eldu dedilla aldareco Mai Santura: «emen artzen da Cristo, betetzen da anima graziaz eta iristen da gloriaren prenda berri bat.»





## Eguneroco Comunioaren gañian



### IRUGARREN PARTIA

1895-garren urteco Abustuan asi guñan zabaltzen, eguneroco comunioaren gañian itz eguiten zuten orricho batzuec. Jesusen Biotzari escatzen guenion bedeincea zitzala orricho oiec, eta zeruco usai gozoz beteric, persona on eta caridadetsuen bidez zabaldu zitezela mundu guzian, eta sartu zitezela parroquia, comentu, eche, colegio eta deboziozco escu-liburu guzietan.

Biotz Sagraduac bedeincatu nai izan zituala diruri, bada urtea igaro baño len, sei aldiz arguitaratu ziran, 96.000 arguitaratzen zirala azqueneco aldietan eta Jesusen Biotzac guziz maite dituan animen zeloari esquerrac, zabaldu ziran ugari ez bacarric Españian, baizic baita emendic campora ere. Biurtu dira frantzesez, ingles eta eusquerara ere. ¡Gloria Jesucristori!

Aita Santu Pio X-garrenac *dauca estimazio guziz andian* eguneroco comu-



niao, eta orain bertan jarri dio Jesusen Biotzari triunfo andi bateraco bidea, ontzat eman eta arguitaratuaz Konzilioco Congregazio Sagraduac gai onetan, 1905 urteco Ilbeltzaren 20-an eman zuan Erabaquia.

Erabaqui onec bi parte dauzca. Lenengoan azaltzen du eguneroco Comunionaren gañean teologoac eracusten dutena. Bigarreanean erabaquitzen du bederatzi azalde otsandicorequin, comunionaco prestaeraren gañian zeuden iritziac.

Aita Santuac eracusten digu Jesucristoren deseo zala cristuac egunero comulgatzea; ala ezagutzen da San Juanec (6-59) esaten digunetic: «Au da zerutic jechi zan Oguia; ez zuen gurasoac jantzuten mana bezelacoa; aiec ill ziran, baña Ogui au jaten duana beti bizico da.» Eta oguia, mana bezela, eguneroco janaria da.

Eliza Ama Santac aguertu zuan deseo ausse bera, lenengo, Elizaco Gurasoen bitartez; eta guero arguiroago Trentoco Konzilioaren bidez.

*¡Zertaraco nai dute Cristoc eta Elizac*



*cristauac egunero comulgatzea?*—Aita Santuac erantzuten du San Agustineo (57-garren Serm. 7. g. num.) esaten dituan itzaquiñ: Ezta aimbeste Jesucristo ganaco honra eta errespetoagatic, ezta cristauen birtuteac sariatzeo ere, baidiz gueiambat cristauac Jaungoicoarequin Sacramentu onen bitartez elcarturic irichi dezaten indarra, beren griña charrac azpiratzeco, eguneroco utseguite chiquiac garbitzeco, eta gure naturaleza argalac pecatu andietan erortzeco arquitzen dituan arriscuetatic aldentzeco.

*Lenengo cristauac equiten zutena ondo zetorren Jesucristoren borondate onequiñ; eta ala egunero comulgatzen ziran.* Oitura ausse bera izan zuten ondo-rengo guizaldiac ere arimen probechu andian, Elizaco Guraso eta escribitzalleac eracusten duten bezela.

*¿Zergatic galdu zan sarritan comulgatzeco oitura?*—Congregazio Sagraduac esaten digu: lenengo, debozioa oztu zalaco, eta ondorengo guizaldietan, janse-nistac deitzen ziran herejeac aguertu ziralaco. Jesucristoren etsai estali auec, berari guerra gueiago eguiteco, azaltzen



zuten campotic debozio eta errespeto andiagoaren iduripen guezurrezco bat, eracutsiaz, guziz gaitz zala ondo comulgatzeco, bear bezela prestatzea.

Izandu ziran guizon jaquintsu eta erligiosoac ere, sarritan comulgatzeco prestaera erraza zala eracusten zutenac, Elizaco gurasuen dotriña jarraituaz, adieraziaz arguiro, eztuala Elizac beñere eracutsi, egunero comulgatzeco prestaera ohea bear danic, illero edo asteero eguiteco baño; eta bai, eguneroco comunioaren frutuac ugarioagoac dirala, illero eta asteerocoarenac baño.

Gure egunetan berritu dira teologoan arteco despita edo ezta-baidac gai onetan. Baña ara Pio X-garrenac zer erabaqui duan:

1.º «Sarritan eta naiz egunero comulgatzea, Cristoc eta Elizac asco deseatzzen duten gauza da, eta Jaungoicoaren grazian eta intentzio zuzenarequin dijonari eziñ iñorc ere eragotzi dezaquio.

2.º »Intentzio zuzena dago, ez oituraz, banidadez, edo beste lureco motiboz, baizic Jaungoicoaren borondatea eguiteagatic, berarequin caridade gueia-



goz elcartzeagatic comulgatzean, zeruco erremedio onequin animaren argaltasuna sendotu, eta utseguiteac ordaintzeco.

3.<sup>n</sup> »Oso ondo izango litzaque sarritan edo egunero comulgatzen danac, pecatu benialic ere, beñepein borondate osozcoric eta aien zaletasunic ere ez iduquitzea, baña ala ta guziz ere, *naicoa da* pecatu mortalic gabe, eta beñere ez eguiteco asmo sendoarequin arquitea: onela comulgatu ezquero egunero, seguru aldenduco ditu azquenic poliqui poliqui pecatu benialac eta ayecganaco zaletasuna ere.

4.<sup>n</sup> »Legue Berrico Sacramentuac beren indarrez ematen badituzte ere frutuac, zembat eta obea dan artzen dituanaren prestaera, aibat eta obeac emango dituzte. Beragatic comulgatu aurretic bear da contuz prestatu, eta comulgatu ondorean esquerrac eman bacoitzac al duan bezela. (Beragatic, meditatzen eztaquianac, asco du escu-liburucu orazioac esatea.)

5.<sup>n</sup> »Sarritan edo egunero comulgatuta frutu gueiago ateratzeco, ondo izango da confesorearen consejuz eguitea,



eta confesoreac eztio eragotzi bear iñori eguneroco Comunioa, Jaungoicoaren grazian eta intentzio zuzenarequiñ arkitzen bada.

6.<sup>n</sup> »Gauza jaquiña da sarritan eta egunero comulgatzeac gueitzen duala Jesucristorequingo batasuna, zabaltzen duala espirituzco bizitza, apaintzen duala anima birtute ugariagoz eta eracartzten digula betico zorientasunaren prendaric seguruen; beragatic *Erretoreac, confesoreac eta sermoilariac*, Erromaco Catecismoaren dotriña jarraituaz, mugitu bitzate cristauac *ardura andiaz, eta sarritan deituaz* oitura aiñ on eta osasungarrira.

7.<sup>n</sup> eta 8.<sup>n</sup> »Numero auetan esaten da, egunero Comunioa gueiembat eguin bear dala Comentu eta Erligiosoen echeetan. Nola eche oetaco Nagusiai tocatzen zaien eguneroco comunioaren alde berriztatzea beren legue eta oiturac, eztegu ezer ere gueitu bear emen, gañeraco cristauentzat. Gogoratu bezate *Quæmadmodum* deitzen dan Erabaquia, contuan iduquiaz Erligioco erreguelac aguintzen badu onembeste edo aimbeste comunio



eguitea, eztala eragozten gueiago eguitea, baizic ori dala guchienecoa persona erligiosoentzat. Eta gañera esaten da, aziteche edo seminario eta cristauari dagoquion aziera ematen dan icasteche-etan sartu dedilla aleguiñaz egunero Comulgatzeco oitura.

9.<sup>n</sup> »Azquenic aguintzen da Erabaqui au jaquiñerazi ezqueroztic, eragozten zaiela escribitzalle eleiztar guziai, sarritan eta egunero comulgatzeco bear dan prestaeraren gañean despita edo eztabaidaric eguitea.

*¡Eman deguiozcagun* esquerrac Jesusen Biotzari caridade aiñ andiagatic! Lenagoco Orrichoetan escatzen guenion bedeinca zitzala, gure itz argalac bere graziaren berotasuna bear zutelaco. Badaquigu seguru, irugarren Orricho onetan Jaungoicoaren espiritua biziro arkitzen dala, bada itzic gueienac, lurrean berac daucan Ordezcoarenac dira. Beragatic ez bacarric utsic biurtuco ez-tira, baizic bendiziozco frutu ugariac eguiñ animetan, eta Jesucristori honra andia emango diote.

*¡Oh Jesus* guziz maitatia! Mundu gu-



zian aditu dedilla judioac eguiten zizuten escari ura: «Eman zaiguzu, Jauna, Ogui ortatic.» Eman zaiguzu Jaungoicoaren mirari guziac beragan dauzean Ogui arrigarri ori.

¡Oh Birgiña guziz Santa! Esan zaizquigutzu guziori itz aiec: (Ama Birgiñaren Elizerrezoan): *Venite, comedite Panem meum, bibite vinum quod miscui vobis.* «Atozte eta jan ezazute nere Oguia; edan ezazute zuentzat prestatu dedan ardoa.»

Ogui ori Cristoren Araguaia, da. Eta Cristoren Araguaia, San Agustiñec dion bezela, Mariaren Araguaia da.





## GUEIGARRIA

---

*Aita Cochen-ec Meza Santuaren gañian esribitu zuan, eta Obispo Jaun ascoc, beren boletinetan asco alabatzen duten liburu batetic, artzen degu ondorengo ejemplo au:*

«Aita Santu Urbano IV-garrenaren bizitzan iracurtzen da guertaera au: 1263-garren urtean Italian, Orbieto-co Obispaduco erri Bolsena deritzanean, arquitzen zan apaiz bat Meza ematen, eta Ostia consagratzeco itzac esan ondorean, Satanas-ec jarri zion burutazio baten bitartez, asi zan dudatzen Ogui consagratua Jesucristoren Gorputz biurtu ote zan. Apaiz doacabe onec esaten zuan bere artean: ¡Eztet ezer sentitzen; eztet mudantzaren ezagungarriric chiquienic ere icusten! Ez, ezta eguia Jesucristo dagoala oguiaren iduripian. Etzan contentatu duda oni lecu ematearequin, baizican eldu zan sinistra, etzegoala an eguiaz Jesucristo gure Jauna, erotzen zala era onetan erejiya eguiazco batean. Ala ta guziz ere jarraitu zuan Mezac ematen eta consagratzen.



Egun batian, Ostia consagratu, eta goratzean, Odola asi zan irrioan odeietatic erortzen dan zuri bat bezela. Ezagutu diteque nolacoa izango zan Apaizaren izua, guertaera au icustean; guelditu zan zurcaitzuric, eta icusi zan, nola euri miragarri au zetorren Ostiatic. Jendeac icusten zuan mirari ori, eta deadar eguiten zuan: ¡O Odol prezioso! ¡O Odol Jaincozcoa! ¿Zergatic orrela issurtzen zera? ¡O euri sagra-dual! Atoz gure animetara eta garbitu gaitzatzu gure pecatuetatic. Batzuec beren bularrac jotzen zituzten, eta besteac negarmalco irazequiac issurtzen zituzten. Gendearen deadarrac aditzean, Apaiza conturatu zan, jechi zuan Ostia, eta corpolaren gafian jarri nai izan zuan, baña eziñ arqutu izan zuan une legor bat, an jartzeco, bada corporal guzia bustiric guelditu zan. Guertaera au icusiric, idiqui zitzaizquion animaco beguiac, ezagutu zuan bere utseguitea, artu zuan eguiazco damua, fedea galdu zualaco, eta jarraitu zuan Meza ematen negarmalco asco issuriaz, aimbesteraño, nun, bein baño gueiagotan orazioac bucatu eziñ izan zituan, gueldi uneren batzuec eguin gabe. Comunio ondoan toloztu zuan corporala al izan zuan ondoen, guertatu zan miraria iñorc jaquiñ etzezana; baña Meza bucatu zanean, juan zitzaizquion jendeac zerbait galdetzera, obequi jaquiteagatic, zer zan eguiaz, icusi zutena. Apaiza icusi zan bearturic corporala iracustera, eta icustean gendeaiec corporal ura, belaunicatu ziran, eta asi



ziran beren bularrac jotzen, eta Jaungoicoari misericordia escatzen. Guertaera miragarri onec eracarri zituan icusmirazale asco Bolse-na-ra. Aita Santu Urbano IV-garrenac jaquin zuan, eta aguindu ere bai, Meza eman zuan apaiza juan zedilla corporalarequiñ bera zegoan lecura, au da, Orbieto-ra. Ala juan zan apaiz doacabea, beldur andiarequiñ; belaunicatu zan Aita Santuaren aurrean, eta barcazioa escatu zion; esan zizquion iduqui zituan dudac eta Odol preziosoaren issurtzea; eta eracutsi zizquion ezagungarritzat, corporalean zeuden señaleac. Aita Santua icaratu zan, eta belaunicaturic muñ eguin zion corporal miragarriari. Urbano IV-garrenac eguñerazo zuan gueroago Bolsenan Eliz eder bat, Odol preziosoaren onran, eta aguindu zuan, prozesio bat atera zedilla zitudadean barruna, mirari au guertatu zan egunetic urtebetetzean. Corporal miragarria icusten dá oraindic gaur ere Orbietoco Catedralean.

---

*Jesusen Compañiako Aita Coube-c* escribitu zuan liburu bat, **ASTEERO COMUNIOA** deitzen dana, eta familientzat guziz on eta egoquitzat gomendatzen dutena *Aita Santu Leon Amairugarrenac, eta Rampolla, Ferrari, Vannutelli, Svampa, Mazzella, Parocchi, Richard* eta beste Cardenal ascoc. *Liburu onetatic artzen ditugu ondo-rengo bi milagro auec.*



## Billeteetaco caleco milagroa

Milagro au guertatu zan 1290-garren urtean Paris-en orduan Jardinetaco calea, eta gaur Billeteetacoa deitzen dan caleco eche batean. Eche ura zegoan lecuan, gaur dago protestanteen eliza bat. Urteero eguiten da San Juan eta San Franciscoren Elizan guertaera onen urteurreneco festa.

Felipe Ederra Erregue zala, emacume pobre, cristau batec, premi estu batean, eman zituan prendatzat bere erroparic onenac Jonatas zeritzaion judio baten echean. Pazcoaco dembora urreratzean comulgatu nai izan zuan, eta erregutu zion lucurari edo usureroari, eguin zeguiola mesede, erropac biurtzeaz Pazcoacoaz cumplitzeco. Eman zizquion erropac, eta baita barcatu ere zor zion dirua, baña condizio batequiñ; eta condizio au zan, ecartzea judioari aldarean artzen zuan Ostia consagrada. Aguindu zion emacume doacabeac ala eguitea, eta cumplitu zuan aguindua.

Ostia Santua icustean, asten da judioa aserrez irazequitzen, zulatzen du bera asco aldiz, eta ateratzen da Odola borboraca. Bere emazte eta umeac, icaraturic, erregutzen diote, utzi deguiola gueldiric; baña alperric; bada guero baño guero sutuago eguiñic, josten du partian, azotatzan du gogor, eta zauritzen du lantza batequiñ. Odola badijoa irrioan eta ugari. Botatzen du Ostia sutara, baña an dabill gora



ta beera, garren gañean, deseguiñ gabe. Desesperaturic judioa, artzen du bere escuetan eta botatzen du, perts batean dagoan ur iraquinetara, eta ur guzia biurtzen da odolaren coloreco, eta orduan aguertzen da an Jesucristo; ¿baña nola? Judioac gurutzean ipini zutenian zegoan bezela. Emen beldurtu eta icartu zan guizon doacabe ura, eta zoroaren antzera, igues eguin zuan Jesucristoren aurretic eta juan zan, echeac zuan basterric illunenean bere burua ezcutatzera.

Baña bere seme, oraindic umea zana, eta guertaera guzia icusi zuana, atera zan caleco atera, eta andic asi zan, bere quide edo edadeco umeai esaten: «Etzaitezte gueiago juan zuen Elizara; eztago an zuen Jaungoicoa, bada gure aitac orainche ill du.» Sartu zan jendea eche artan, eta nola eheco tresna guziac icusi zituzten Odolez bustiric, belaunicatu ziran Ostia santuaren aurrean; eta Ostia au, Odola zeriola, juan zan bera bacarric emacume debota batec zeucan baso batera, eta onec eramán zuan bere alasse urren zegoan Elizara, au da San Juan Grebe-coarenera, eta an iraun zuan Ostia santuac laureun urtean.

Gaizquillea castigatzeco eta milagro oni sinismeua emateco bear ziran zereguiñac eguiñ zituan Simon de Bucy, Paris-co Arzobispo Jaunac, eta Billeteetaco Capilla eguin zan judioaren echea zegoan lecuan. Guertaera miragarri au eguiazcoa dala arguiro adierazten dute iru bulda Aita Santuac emanac.



## Zaragoza-co milagroa

Oso sonatua da Zaragoza-co Catedralian, 1427-garren urtean, Don Alonso Argüello ango Arzobispo zala, guertatu zan Ume Sacramentatuaren aguerquera. Eliz artaco Arzediano Dormer, Jaun guziz jaquintsuac utzi zigun escribituric aguerquera au, onela:

Emacume ezcondu bat jua zitzaiou Alfaquí, au da Moro jaquintsu, gaizto eta sendatzalle bati conseju bat escatzera. Emacume onec zeucan senar, genio guziz charrecoa, tratu charrac ematen zizquiona, eta nai zuquean jaquiñ, zer eguiñ zezaquean, senarrac bigunago artu zezan. Moro gaiztoac erantzun zion, irichico zuala senarraren genioa mudatzea, eta baita senarrac bere emaztea maitatzea ere, baña onetaraco erremedio bearrecoa zala, Ostia consagratu bat. Aguinu zion emacume gaiztoac, berac ecarri eta escuetan ipinico zio-la, eta onetaraco jua zan confesatu eta comulgatzera Catedral artan dagoan parroquia-co San Miguel-en capillara; eta Comunio Santua artu beziñ laster, eguiñ zuan deabruqueria, atereaz bere aotic Ostia consagratua; eta ipiniric artaraco zerman cajacho batian, jua zan ondorean judioaren echera, berari ematera. Baña ¿zer guertatu zan? cajachoa idequitzian, icusi zuan oso arrituric, Ostia Santuaren lecuan, ume chiqui eder, eta alde guzietara argui-errañuac bótatzen zituan bat. Ica-



raturic emacumea mirari onequiñ, etzequian zer eguiñ; edo eman aditzen bear zan lecuan, zer guertatzen zitzaion, edo eraman aurrera bere asmo galdua. Esan zion moroac, artu zezala cajachoa bere umearequiñ eta erre zitzalabiac ezcutuan bere echean. Ala eguiñ zuan, emacume doacabeac; baña laster icusi zuan, nola, erreric, eta auts biurturic cajachoa, Umea guelditzen zan erre une chiquienic ere gabe; eta erraiñu guziz arguiac bere gorputzetice botatzen zituala.

Icaraturic emacumea, eta guertatzen zitzaionaren arrazoeric eman ezin zezaqueala, mirari berri au icustean, biurtzen da atzera bere consejatzalle gaiztoaren echera, guertaera onen berri ematera. Beldurtu zan orduan moroa, eta biac icaraz eta lotsaz beteric guelditu ziran, zeruaren castiguren bat gañean zuten beldurrez, mirari onen bistan humillatu eta beren pecatuaren penitentzia eguiten ezpazuten. Erabaqui zuten, biac Catedraleco Elizara juatea, emacumea confesatzera, eta guizase-meaa ango Bicario generalari guertaeraren berria ematera; eta ala eguiñic, escatu zuan gañera negar malco ugariaquiñ bataio santua.

Au guzia aditzen eman zitzaion Don Alonso Arzobispo Jaunari, eta onec aguindu zuan, jaquin zedilla ondo, guertatu zan guzia, eta galde eguin zediela guizon andi eta jaquintsuai, zer eguin bear zan; eta ondo jaquiñ eta seguruturic, eguiazcoa zala guertaera aiñ miragarria, erabaqui zuten, prozesioan eramatea



atzera Ume Jaungoico Sacramentatu ura emacumearen echetic Elizara. Bildu ziran bada egun artan bertan (zapatua zan) prozesio andibat eguiteco, San Salbador-co eta Pilar-eco cabildu biac, gañeraco apaiz eta prailleac, ciudadeco aguintariac, andizquiac eta gañeraco jendea, Arzobispo Jauna guzien buruan palioaren azpian zijoala, eramana errebentziaric andienarequin bere escuetan, urrezco patena baten jarriric, Aur Jaungoicoa. Beguirune guziac, malco ugariac issuriaz, zuzentzen ziran Ume miragarriagana, eta onec, joanaz, berarequin zeramazquian guzien biotzac. Elduric azquenic prozesioa Elizara, ipini zan San Balero-ren aldarearen gañean, jende guziac, Aur ura icusteco, zeucan egarria ase zediñ, eta bucatu zan prozesio andi au, Arzobispo Jaunac, mirari onequin biotz bigunduric, eguin zuan itzaldi eder batequiñ.

Egun aren gañeracoan eta gau guzian egon zan Ume jaincozcoa aldarearen gañian, Zaragoza-co jende catolico guzia aspertu zediñ icustez eta adoratzez, eta urrengo goizean, igandean, eman zuan Arzobispo Jaunac aldare artan bertan Sacramentu Santuaren Meza. Orduan guertatu zan beste mirari andi bat, bada Meza ematen zegoan Arzobispoa, Ofertorioco zeremoniara eldu zanean, ezcutatu zan Ume miragarria patenatic, utziaz bere lecuan, Ostia sagradu bat, eta Arzobispo Jaunac, comulgatzean, artu zuan Ostia au.

Gueitu zan egun artatic Zaragoza guzian



Aldareco Sacramentuaganaco fede eta debo-  
zioa. Aguinu zuan gañera Arzobispo Jaunac,  
eguin zedilla Elizan capilla bat, mirari onen  
oroipenac iraun zezan, eta Don Juan Bigarre-  
nac, Calatayud-co Corteetan, 1461-garren ur-  
tean, eguin zuan legue bat, aguinuaz judioai  
eta moroai castigu andien bian, erreberentzia-  
tu zezatela Aldareco Sacramentu Santua, pro-  
zesioan zeramaten edozein lecutan.

Adoratu dezagun bada gure Jaun Sacra-  
mentatua, bada mirari andi eta jaincozcoen  
bitartez ezagutu da, dagoala Bera eguiaz Ostia  
consagratuan.

*Oarpidea.—La Seo-co Catedraleco Santo Do-  
mingocho-ren capillan, dago pintaturic cuadro  
andietan mirari onen condaira arrigarria.*





Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page. The text is arranged in several lines and is difficult to decipher due to its low contrast and blurriness.



## ARQUIBIDEA

---

	<u>Orrial- deac</u>
Sarrera . . . . .	3
Comunio Santua. . . . .	5
Comunio Santua zer dan. . . . .	7
I.—Maiz comulgatzeco gauza bearra da, naizen baño santuagoa izatea. . . . .	11
II.—Ez naiz ni diña, aifñ maiz comulgatzeco . .	13
III.—Maiz comulgatzen danean, eltzen da bat, ezer ere ez sentitzera . . . . .	17
IV.—Beldur naiz gauza santuac errespeto guchi- requifñ tratatuco ote ditudan . . . . .	19
V.—Ez naiz atrebitzen comulgatzen, confesatu gabe, eta ezifñ confesatu nindeque, nai dedan guztian . . . . .	22
VI.—Ezifñ comulgatu diteque iñor, prestatu gabe, eta eztaucat astiric, bear bezela prestatzeco .	25
VII.—Eztet sentitzen gozotasunic comulgatzean; beste gauzatan pensatzen, eta debozio gabe egoten naiz . . . . .	30
VIII.—Ez naiz atrebitzen maiz comulgatzen, uts- eguiteetan beti berdiñ erortzen naizelaco . .	34
IX.—Maiz comulgatzen banaiz, beldur naiz ica- ratuco ez ote diran eta escandalosotzat idu- quico ez ote nauten, ezagutzen nautenac . .	38
X.—Baña nere familiac gaizqui iritzico lioque, maiz comulgatuco banintz . . . . .	42
XI.—Ezagutzen ditut nic persona piadoso asco, guchitan comulgatzen diranac. . . . .	45
XII.—Onen gañian itz eguingo baniquio nere confesoreari, seguru nago, ez liquidala ontzat artuco . . . . .	47



XIII.—Naicua da, jairic andienetan, edo gueie- naz illean beifi comulgatzea . . . . .	57
XIV.—Itz batean, ori guzia da, eguifi ezifi dite- quen gauza gueieguizco bat. . . . .	61
Umeac maiz comulgatzea. . . . .	63
Gazteac maiz comulgatzearen gañian . . . . .	71
Comunio Santua maiz artzea Aziteche edo Se- minarioetan . . . . .	75
Zeifi ona dan gaisso eta atsecabetuentzat maiz comulgatzea . . . . .	79
Azquena . . . . .	83
Barcamen edo Indulgentziac irabazteco asteero- co Comunioaren gañian, Indulgentzien Ba- tzarre Sagraduac eracusten duana . . . . .	84
Eguneroco Comunioa. Lenengo partia . . . . .	89
Gueiago eguneroco Comunioaren gañean . . . . .	96
Eguneroco Comunioaren gañian. Irugarren par- tia . . . . .	105
Gueigarria . . . . .	113

















